aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA

Usurbilgo Udala

USURBILGO UDALA

JATORRI ANIZTASUNA ETA ELKARBIZITZA USURBILEN, 2020



AURKIBIDEA

SARRERA 3
METODOLOGIA OHARRAK 4
EMAITZAK 6
1. USURBIL ANITZA IZAN DA... 7
1.1. MIGRAZIO-PROZESUAK 9
1.2. USURBILERA IRITSIERA ETA EGOKITZAPENA 11
1.3. EGUNEROKO BIZITZA USURBILEN 15
1.3.1. Lana 15
1.3.2. Eskola 16
1.3.3. Aisialdia 18
1.3.4. Euskara 19
1.3.5. Auzoak: Santuenea 22
1.4. MIGRAZIOAREN BALORAZIOA ETA INTERAKZIORAKO AUKERAK 25
1.4.1. Migrazioaren balorazioa 25
1.4.2. Desberdinen arteko harremanak: interakziorako guneak eta uneak 26
2. … ETA GAUR EGUN ERE ANITZA DA 30
2.1. MIGRAZIO PROZESUAK 31
2.2. USURBILERA IRITSIERA ETA EGOKITZAPENA 33
2.3. EGUNEROKO BIZITZA USURBILEN 37
2.3.1. Lana 37
2.3.2. Eskola 39
2.3.3. Aisialdia 41
2.3.4. Euskara 42
2.3.5. Auzoak: Santuenea 44
2.4. MIGRAZIOAREN BALORAZIOA ETA INTERAKZIORAKO AUKERAK 48
2.4.1. Migrazioaren balorazioa 48
2.4.2. Desberdinen arteko harremanak: interakziorako guneak eta uneak 53
ONDORIOAK 61
3. HARREMANAK IRUDIKATZEKO HIRU EREDU 62
3.1. 1 EREDUA: KULTURARTEKOTASUNA 63
3.2. 2. EREDUA: KULTUR ANIZTASUNA 64
3.3. 3 EREDUA: ASIMILAZIOA 64
4. DESBERDINEN INTERAKZIOA BILATZEKO GAKOAK 65

SARRERA

Dokumentu honetan jasotzen dira Aztiker Soziologia Ikerguneak Usurbilgo Udalarentzat egindako Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza Usurbilen, 2020 ikerketako emaitzak. Proiektu hau 2020ko udazkenean egin da, eta elkarrizketa sakonetan oinarritutako ikerketa kualitatibo bat izan du muina.

Jatorri aniztasuna eta elkarbizitza Usurbilen proiektuaren helburua honakoa izan da: jatorri eta bizitza istorio desberdinak dituzten herritarren bizipenak, diskurtsoa keta esperientziak ezagutzea Usurbilgo herria eta herritarrekiko, modu horretan jatorri ezberdina duten herritarren arteko harremana eta interakzioa areagotzeko eta elkarbizitza hobetzeko gakoak jasotzeko, eta mahai gainean jarri ahal izateko, segidan usurbildar guztien artean adosteko eta lantzeko jatorri aniztasuna eta elkarbizitzaren arloan udal mailan sustatu daitzekeen ekintzak eta jarduerak.

Ikerketa honen asmoa izan da Usurbilgo Udalak hurrengo urteetan jatorri aniztasuna eta elkarbizitza lantzeko izan ditzakeen lan-ildo, gai eta ekintza posibleak identifikatzea. Horretarako, herritarren bizipenak eta iritziak kontuan hartu dira. Haiek jaso eta helarazten dira dokumentu honetan, Usurbilgo Udalak aurrera begira martxan jar ditzakeen ekintza, jarduera, lan-ildo eta politika diseinuak herritarren interes eta behar errealetan oinarrituak izan daitezen ahalik eta neurri handienean.

Txostenak honako egitura dauka:

- Sarreraren ondoren, ikerketa egiteko erabilitako metodologiaren inguruko oharrak ematen dira.
- Segidan, ikerketaren emaitzak aurkezten dira, eduki bloke nagusietan banatuta.
- Ondoren, lanean bildutako ondorio nagusiak jasotzen dira, eta aurrera begirako lan-ildo proposamenak deskribatzen dira.

Proiektu hau aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan da Usurbilgo herriaren inplikazioa: Udaletik ikerketa aurrera ateratzeko erakutsitako prestutasuna eta eskainitako baliabideak, kontaktazioetan eta landa lana aurrera eramaterakoan bidelagun izan ditugun herritarrena eta, nola ez, beren bizipenak eta historiak gurekin partekatu dituzten usurbildarrena. Zuei guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu, elkar hobeto ezagutzeko eta elkarrengana gerturatzeko ariketa honen muina izan zaretelako.

METODOLOGIA OHARRAK

Ikerketa kualitatiboa izan da honakoa, elkarrizketa sakonetan oinarritua. Ikerketa kualitatiboak egokiak dira intereseko fenomenoa sakonago aztertzeko intentzioa dagoenean, ideia berriak, gizarte-bizitzako sakoneko mekanismoak, kontzeptu gakoak eta bizipenen aniztasuna ezagutu nahi direnean. Hala, migrazioaren eta jatorri aniztasunaren bizipenean udalerri zehatz bateko garai konkretu bateko gai nagusiak eta aurrera begirako lan-ildoak identifikatzeko oso baliagarriak izan ahal zaizkigun bideak irekitzen laguntzen digu ikerketa kualitatibo batek.

Teknika moduan, elkarrizketa sakonak erabili dira. Banakako eta binakako elkarrizketa sakonak konbinatu dira, kasu bakoitzean zeuden aukera eta interesen arabera. Aztikerretik ahalegina egin da binakako elkarrizketak izateko ahalik eta gehienak, modu horretan jasotako informazioaren aberastasuna eta sakontasuna areagotuko delakoan. Izan ere, binakako elkarrizketetan, baldintza egoki eta erosoetan eginez gero, bi ikuspegi "desberdin"-ek elkar elikatzen dute, eta banakako elkarrizketa batean baino informazio aberatsagoa eskuratzen da. Pertsonak binaka elkartzearen helburua diskurtsoa bien artean osatzea da, xehetasunak eta ñabardurak azaleratzea; baina antzeko profila izatea eta elkarrekiko konfiantza edukitzea beharrezkoa da, kontuz ibili behar baita eztabaida sustatu eta edukia ez mugatzearekin.

Elkarrizketa sakonen bidez, jatorri aniztasunaren eta elkarbizitzaren gaian Usurbilen dauden esperientzia anitzetara gerturatzea izan da helburua. Elkarrizketatutako pertsonen bizipenak eta diskurtsoak jaso dira, modu horretan gaiarekiko herrian dauden sentsibilitate eta esperientziak sakonago ezagutzeko asmotan. Kontuan hartu behar da elkarrizketatuetara eta haien diskurtsoetara hurbiltzen garela pertsonak ez garelako izate isolatuak eta, ondorioz, norberaren diskurtsoa ez delako izaten diskurtso "originala" edo "partikularra", baizik eta bere kokagune sozialeko erreferentziazko taldeen diskurtsoak identifikatzeko aukera eskaintzen duelako. Horrela, posible da (elkarrizketatuen aukeraketa egokian oinarrituta) pertsona gutxi batzuen elkarrizketekin, gai honi buruzko diskurtso esanguratsuenen mapa osatu bat izatea.

Hori kontuan izanda, ikerketaren hasieran hainbat profil definitu dira, jatorri aniztasuna eta Usurbilekiko harremanean eragina izan zezaketela baloratutako aldagai batzuen arabera. Aldagai horien artean honakoak hartu dira nagusi moduan: adina, generoa, jaiolekua (norberea edota, kasu batzuetan, aurreko belaunaldiena), eta haurrak izatea edo ez.

Aldagai horiek kontuan hartuta, hamaika profil diseinatu dira. Ezaugarri horiek betetzen dituzten usurbildarrengana iristeko, Udalaren laguntzaz bitartekari batzuk identifikatu dira, beren komunitatean (auzoan, jatorri bereko jendearen artean, belaunaldian…) erreferentziazkoak diren pertsonak. Horien bidez identifikatu eta kontaktatu dira elkarrizketetan parte hartu duten pertsonak.

Modu horretan eginda kontaktazioa, profil bereko kontaktu bat baino gehiagorengana iritsi gara; eta, era berean, elkarrizketak bideratu dituzten kontaktatzaileekin ere hainbat bilera egin dira, kasu batzuetan landa lanaren parte bihurtu direnak eta grabatutako elkarrizketa saio izan direnak.

Hala, proiektuan zehar guztira hamalau elkarrizketa saio grabatu dira, guztira 20 partaiderekin. Guztiak kontuan hartuta, hurrengo taulan jasotzen dira elkarrizketen eta elkarrizketatuen ezaugarriak:

ZK.	DATA	PERTS. KOP.	SEXUA	HIZKUNTZA	ADINA	HAURRAK	IZAERA
1	20/10/29	2	E+G	Euskara	30 urtez azpikoak	Bai	Urtebete Usurbilen daramaten Euskal Herriko beste lekuetan jaiotako herritarrak, jatorri euskaldunekoak.
2	20/10/26	1	G	Euskara	30-59 urte artean	Ez	Usurbilen jaiotako herritarra, gurasoak Espainiatik etorriak.
3	20/09/23	2	E+E	Euskara	+60 urte	Ez	Euskal jatorriko gurasoak dituzten usurbildarrak, bertan jaioa eta txikitan etorria.
4	20/10/07	2	G+G	Euskara	+60 urte	Ez	Euskal jatorriko gurasoak dituzten eta Usurbilen jaio eta bizi diren herritarrak.
5	20/10/22	2	E+E	Euskara	30-59 urte bitarteko bat eta +60 bat	Bai (batek)	Euskal jatorriko gurasoak dituzten eta Usurbilen jaio eta bizi diren herritarrak.
6	20/10/19	2	E+G	Gaztelania	30-59	Ez	Usurbilen hilabete batzuk daramatzaten espainiar jatorriko herritarrak.
7	20/10/06	1	E	Gaztelania	+60 urte	Ez	Espainiako estatuan jatorria duen usurbildarra, txikitan iritsia Usurbilera gurasoekin.
8	20/10/08	1	G	Gaztelania	+60 urte	Ez	Espainiako estatuan jatorria duen usurbildarra, lanera iritsia Usurbilera.
9	20/11/12	1	E	Gaztelania	+60	Ez	Espainiako estatuan jatorria duen usurbildarra, lanera iritsia Usurbilera.
10	20/10/07	1	E	Gaztelania	30-59 urte artean	Bai	2003an etorri zen jatorri latinoamerikarreko usurbildarra.
11	20/09/29	2	G+G	Gaztelania	30 urtez azpikoa eta 30-59koa	Bai	5 urte eta urtebete bertan daramatzaten jatorri latinoamerikarreko usurbildarrak
12	20/10/16	1	E	Gaztelania	30 urtez azpikoa	Ez	6 urte Usurbilen daramatzan jatorri latinoamerikarreko usurbildarra
13	20/10/23	1	E	Gaztelania	30 urtez azpikoa	Ez	7 urte Usurbilen daramatzan jatorri afrikarreko usurbildarra
14	20/10/30	1	E	Gaztelania	30-59 urte artean	Bai	7 urte Usurbilen daramatzan jatorri afrikarreko usurbildarra

Ikerketaren landa lana 2020ko irailaren 23a eta azaroaren 12a bitartean egin da. Guztira, 12 emakumek eta 8 gizonek parte hartu dute. Elkarrizketak grabatu egin dira, parte-hartzaile guztien onespenarekin, eta segidan materiala ustiatu da, berarekin txostena osatzeko.



EMAITZAK

Ikerketa hau egituratu duen ardatz nagusietako bat garai historikoa izan da. Usurbilek azken hamarkadetan bi migrazio nagusi jaso ditu, Euskal Herriko beste txoko askok bezala: XX. mendeko 50 eta 70 hamarkaden artean herritar ugari etorri ziren Espainiako beste leku batzuetatik. Usurbilek bizitako industrializazioak erakarri zuen migrazio hori, eta jende kopuru esanguratsu bat iritsi zen herrira. Bigarren migrazio olatua XXI. mendea hasi denetik sumatzen da: tantaka-tantaka, aurreko aldian baino intentsitate txikiagoarekin baina gelditu gabe, munduko beste txokoetatik iristen ari diren pertsonak dira protagonistak.

Bi migrazioak bizi izan dituzten pertsonen esperientziak jaso dira ikerketa honetan: XX. mende erdialdeko prozesua ezagutu zutenak (Usurbilera bizitzera etorri zirelako edota bertan bizi zirelako eta ikusi egin zituztelako beste herrikideak iristen) eta baita gaur egungo prozesuarekin lotuago dauden pertsonak ere.

Migrazio historien atzean sarritan agertzen diren ezaugarri batzuk daude (motibazioak eta arrazoiak, lekualdatze prozesuak, egokitzapena, harreman berriak eraikitzearen erronka…), baina era berean, desberdintasun nabarmenak sortzen dituzten faktoreak dituzte bi migrazio-olatuek: testuinguru historiko eta sozioekonomikoa, herrira iritsitako pertsonen kopurua eta baita distantzia kulturala ere, esaterako. Hori kontuan izanik, txostena egituratzeko ardatz nagusi moduan migrazio-olatuak hartu ditugu. Lehenengo, XX. mende erdiko bizipenei egingo diegu lekua; bigarren atal batean jarriko dugu begirada egungo fenomenoan. Modu horretan, garai bateko bizipenek gaur egungo errealitatearekiko zein antzekotasun eta desberdintasun dituzten antzemateko parada izango dugu, eta baita aurreko aldian bizitako esperientzietatik zer ikas dezakegun pentsatzeko ere.

1. USURBIL ANITZA IZAN DA…

Migrazioaz hitz egiten hastean, aipagarria da XX. mende erdialdean jazotako migrazio-olatua[1]. Industrializazioak eta lan-eskaintzak eragin handia izan zuen garai hartan, eta Espainiako beste lekuetatik etorritako lagunak izan ziren garai hartako migrazioaren protagonistak.

Hamarkada batzuk igaro dira ordutik, eta gaur egungo Usurbili forma ematen dio garai hartako migrazioaren zantzuak oraindik ere. Lan bila etorri ziren pertsona haiek adinean gora doaz: horrekin lotuta, aldagai soziodemografikoen bilakaera nabaritzen da. Batetik, nahiz eta talde esanguratsua izaten jarraitzen duten, gero eta pisu txikiagoa duen kolektiboa da: 2002an Usurbildarren % 15 ziren Nafarroa Garaia eta Espainiako Estatukoak; ehuneko hori pixkanaka jaisten joan da, eta 2019an % 12,1 dira. Bestetik, espainiar jatorriko usurbildarren batez besteko adina 64,5 urtekoa da, herritarren batezbestekoa baino hogei urte altuagoa.

Jaiolekuen bilakaera Estatu nagusien arabera



Iturria: Usurbilgo jatorri aniztasuna zenbakitan, 2020

[1] Elkarrizketatu batzuek adierazi dute migrazio-olatu horren aurretik gertuko herrietatik jasotako beste migrazio bat izan zela, 50. hamarkadaren erdialdera.

Migrazio hark herriari forma eman dio eta lagundu du gaur egungo Usurbil eraikitzen: auzoak eta herriaren zabalpena diseinatzerakoan parte hartu duen faktorea da, herritarren arteko harremanak sortu dira, bigarren belaunaldiaren esperientzietan eragin du gurasoen bizitza-historiak… Gaur egungo Usurbil ezagutzeko eta jatorri aniztasunaren inguruko kudeaketaren diagnosia egiteko, kontuan hartu eta erreparatu beharreko ezinbesteko garaia da 50-70. hamarkada bitartekoa. Izan ere, orduan egindakoak –eta egin gabe utzitakoak- egungo herrikideen esperientzia eta bizipenetan islatuta daude; eta aurrera begira diseina daitezkeen politikak definitzeko gogoeta interesgarriak eskaintzen dizkigute.

Garai historiko hura ezagutu zuten hainbat usurbildarren bizipenak jaso dira elkarrizketa sakonetan, bai herrira iritsi zirenenak (gaztetan/heldutan lan bila, txikitan gurasoekin…) eta baita Usurbilen bizi ziren eta migratzaileak iristen ikusi zituztenenak ere. Segidan datozen edukiak elkarrizketa horietan esandakoetan oinarritzen dira.

1.1. MIGRAZIO-PROZESUAK

XX. mende erdialdeko migrazioa testuinguru politiko eta ekonomiko zehatz batean kokatzen da. Euskal Herrian orokorrean, eta Usurbilen ere bai zehazki, mendearen erdialdetik aurrera hazkunde ekonomikoa gertatzen hasi zen, bereziki industriaren sektoreari lotuta. Beraz, garai hartako errealitatearen bereizgarri handienetako bat lan-eremuan gertatzen ari ziren aldaketak dira. Usurbilen eta inguruetan enpresa ugarik jarri zuten beren plantaren bat, eta horrek eraginda lan-eskaintza handia zegoen garai moduan oroitzen da. Enpresa ugari aipatzen dira, horien artean errepikatuenak Luzuriaga, Michelin eta Ingemar.

> *Berehala hasi zan hemen jendea, fabrikak, Lasarteko Michelin, Luzuriaga, gero Ingemar ere bai… Eta orduan, gazte jendea segituan fabriketara sartzera joan zen. Eta klaro, hemengo gaztea sartzen joan zen bezala, kanpotik ere jendea etorri zen hona asko. (Gizona, +60, Usurbilen jaioa)*

Fenomeno horrek bideratu zituen Espainiako beste leku batzuetako pertsona askoren migrazio-prozesuak zonalde honetara, bizi-baldintza hobeak lortzeko asmoarekin oinarrian. Elkarrizketatutako pertsonen oroitzapenek migrazio-prozesuen abiapuntuan zegoen faktore ekonomikoa jasotzen dute:

> *Orduan, kanpotik etortzen zena, Espainia mailan ari naiz esaten, jende pobrea, oso pobrea. Etortzen ziren egurrezko maleta kozkor bat izaten zuten. Eta esaten zuten dotea jaso zutela etxean, etxetik ateratzerako, 500 pezeta. Eta hura bidaian gastatzen zuten. (Gizona, +60, Usurbilen jaioa)*

Banakako migrazio-proiektuei erreparatzen hasitakoan, sarritan ohartzen gara beste pertsonek aurrez eman dituzten pausoekin loturak sortzen direla, eta hurrengo urteetan gertatuko diren mugimendu ugari ere argitzeko bide eskaintzen dutela. Martxan jartzen den ohiko mekanismo bat *familia-bateratzeena* da. Hau da, norbanako bat lekuz aldatzen denean, sarritan bere gertuko harreman-sareetako kideek (askotan familiak) bere pausoak jarraitzen ditu hurrengo urteetan. Modu horretan osatzen dira helmuga herrialdean ere jatorri beretsuko komunitate esanguratsuak[2]. Espainiako Estatutik aurreko mende erdialdean etorri ziren herritarren kasuan, gizonezkoak ziren sarritan lehenengo desplazatzen zirenak; behin nonbaiten kokatu ondoren, beste familiakideak ekartzen zituzten (bikotea, haurrak, anai-arrebak, gurasoak…).

> *[Mi padre] se vino para que con un amigo, un amigo de él también se quedó sin trabajo y se vinieron los dos. Yo tena una tía, una hermana de mi madre en [un pueblo cercano]. Y llegaron a San Sebastián en tren. Y le dice el amigo: "¿Por qué no te vienes, te bajas conmigo? Pues mañana ya te irás a Irun". "Pues bueno, vale." Total, que él bajó y ya se quedó aquí, en San Sebastián. Y se vinieron los dos a Usurbil, porque el otro tenía familia aquí también, o conocía a alguien o algo. Y se vino en octubre, creo; nosotros vinimos en enero. Y en enero, el día 20 de enero, el día de San Sebastián, vinimos a Usurbil, a San Sebastián, mi madre, mi hermano y yo, en tren. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)*
> *Porque estaba mi hermana, una ya. Estaba trabajando. Mi hermana ya estaba casada y vivía aquí. […]. Luego con el tiempo se vinieron mis padres también, están mis hermanos todos por aquí también, estamos todos. (Emakumea, +60, espainiar jatorria)*

Aurretik ezagun bat bertan bizitzen izateak abantaila batzuk eskaintzen zituen leku horretan bizimodu berri bat eraikitzen hasteko. Esaterako, bizilekua lortzeko edo lana bilatzeko prozesuak erraztu zitzakeen.

[2] Adibidez, Usurbilen 2019an 15 pertsona bizi dira Esparragosa de la Serena (Badajoz) udalerrian jaiotakoak. 2019ko datuen arabera, udalerri horretan 1.019 biztanle daude gaur egun (INE, 2019). Zifra baxuak diren arren, gertuko harreman-sareek migrazio fenomenoetan duten pisuaz ohartarazteko balio digute.

Yo tenía un primo que vivía en San Sebastián. Y le decía: "Oye, a ver si convences a mis padres pa' que me dejen marchar contigo. Y, al final, de idas y venidas, les convencieron. Y entonces me dieron el permiso pa' empezar a trabajar. Mi primo trabajaba en un taller, y ahí me colocó. Él me buscó pensión, él me colocó. Y al año y medio se marchó, y aquí me quedé solo. (Gizona, +60, espainiar jatorria)

Batzuen kasuan, baina, Usurbil ez da izan lehenengo iritsiera lekua. Horretan eragin handiena izan duen faktorea hiriburuaren gertutasuna izan da: Donostiara joan da jendea lehenengo edo Donostia izan du erreferentzia, eta Usurbilen amaitu du geroago hiriburuarekiko gertutasunak eta prezio merkeagoek erakarrita. Horrek herriarekiko hasiera bateko pertzepzioan eta errepresentazioan eragiten du, eta baita udalerriarekiko, lehenengo urteetan behintzat, sortuko den harremana aurreikusteko gako batzuk eskaini ere; izan ere, Donostiatik gertu egoteko modu bezala erabaki da Usurbil hartzea bizilekutzat. Gertakari hori, aurrerago ikusiko den moduan, gaur egun ere errepikatzen den ezaugarri bat da udalerriak jasotzen dituen migrazioetan.

Hasta que me casé viví en Donosti. Estuvimos viviendo de alquiler […] hasta que nos vinimos a Usurbil. [¿Y por qué vinisteis a Usurbil?] Porque mirando pisos, pues vimos que era un sitio cercano y vimos una promoción que nos gustó. Y fue por eso. No hubo otra… No porque en ese momento yo dijera: "tiene que ser Usurbil sí o sí.". Hombre, es cierto que los barrios pegando a Donosti –porque en la capital era imposible comprarse una vivienda- pues a mí había barrios que no me gustaban. Intxaurrondo no me gustaba, Alza no me gustaba, Lasarte me gustaba menos que Usurbil… Prefería un sitio tranquilo como dormitorio. Y me gustó Usurbil porque es tranquilo. (Gizona, +60, espainiar jatorria)

LABURBILDUZ (MIGRAZIO PROZESUAK)

- XX. mende erdialdean **hazkunde ekonomiko handia** gertatu zen Euskal Herrian eta baita Usurbilen ere, bereziki industriaren sektorean.
- Horrek **lan-eskaera** handia ekarri zuen. Bertan bizi ziren pertsonak aukera berri horietan lanean hasteaz gain, Espainiako beste leku batzuetako pertsonak ere bertaratu ziren lan horietan aritzeko asmotan.
- Zehazki Usurbil aukeratzeko arrazoien artean, aurrez ezagunen bat bertan edukitzeak pisu nabarmena du. Horrez gain, **familia-bateratzeen** bidez ere pertsona baten atzetik beste hainbat iritsi ohi ziren.
- Kasu batzuetan, Usurbilen amaitzearen arrazoia **Donostiarekiko gertutasuna** eta prezio baxuagoak izan dira.

1.2. USURBILERA IRITSIERA ETA EGOKITZAPENA

Atal hau interpretatzerakoan, kontuan hartu behar da mintzagai ditugun pertsonak eta migrazio-fenomenoa duela mende erdia gertatu zela. Hau da, Usurbilera XX. mende erdialdean iritsi ziren eta gaur egun oraindik herri berean jarraitzen duten pertsonak dira beren oroitzapenez eta irudipenez dihardutenak, edo pertsona horien seme-alaben iritziak jasotzen dira. Elkarrizketatutako pertsonak horiek izan direnez, Usurbilekiko atxikimendua nolabait garatu duten norbanakoak dira, edota behintzat bizitzeko udalerri moduan hautatu izatea justifikatzen dutenak. Bestalde, ez daukagu aukerarik Usurbilera etorri bai baina tarteko urteetan berriro herritik alde egin duten pertsonen bizipenetara iristeko, egon izan direla adierazi zaigun arren elkarrizketetan.

Duela mende erdiko garaietan pentsatzen jarrita eta gaur egungo errealitateari begiratuta, balorazio bera konpartitzen dute elkarrizketatutako pertsonek: Usurbil herri txiki moduan pertzibitzen da. Herriarekiko atxikimendua adierazi duten elkarrizketatuen kasuan, udalerrian sentitzen dituzten lasaitasuna, bakea eta segurtasuna indargune moduan adierazi dira eta bertan geldituarazi dituen faktore moduan azaltzen dira.

> *Beti egon gara oso gustora Usurbilen. Oso lasaia delako. Adibidez, niri Donostiara joatea, oso polita da, han dago eta ni joaten naiz nik nahi dudanean. Baina gero, bizitzarako, umeak izateko-eta, nik nahiago dut hemen bizitzea. Nik behintzat. Bai, herri oso lasaia da, oso berdea eta oso garbia. Eta jendearekin oso gustora. […] Denok joaten gara kanpora oporretara beste lekuak ezagutzera, baina beti daukazu gogoa hona berriz etortzeko, zure etxera eta zure herrira. (Gizona, 30-59, Usurbilen jaioa eta jatorri espainiarreko gurasoak)*

> *Un pueblo muy tranquilo. [De mi casa] Yo tenía vistas de todo monte, y como eso me gusta… […] Ha sido un pueblo muy tranquilo, que andaban los críos en la calle, no había ningún peligro. (Emakumea, +60, espainiar jatorria)*

> *A mí me encantó. El primer recuerdo que tengo de Usurbil fue eso. Era octubre, ¿no? Era otoño. Y estaban los árboles un poco rojos. Se empezaban a poner rojos, amarillos… Y me encantó. Te lo juro que me encantó. […] Usurbil me parece un sitio tan tranquilo a la vez y donde me sentía segura. Al venir de un sitio que donde con once años –cuando lo comparo es que me quedo asustada hasta yo- con once años, desde una terraza, vi en la capital cómo secuestraban a un hombre. Y luego llego a Usurbil y le digo a mi madre: "¿Pero puedo salir sola?". Para mí fue paz y seguridad. Un sitio donde puedas ir por la calle y no tengas miedo. (Emakumea, 30 urtez azpitik, jatorri latinoamerikarra)*

Era berean, txikitasun hori eta herri izaera integratzeko eta herritarrekin harremanak sortzeko indargune moduan ulertzen dira, hiri handiagoek eskaintzen ez dutena.

> *Yo tampoco tenía ganas de irme otra vez a centro ciudad. Cuando estás fuera, necesitas tenerlo todo como más fácil. Porque si ya te cuesta integrarte por lo que hablamos antes del idioma o de que no estás en el sitio a lo mejor un poco más complicado ubicarte, la zona, tal, pues dices, ¿dónde te vas? Pues me voy al centro de la ciudad o lo más céntrico posible, aunque al final sea un barrio a las afueras. […] Al final, en el centro, tu vida es mucho más sólo tú. Porque siempre te cuesta más conocer gente. La gente va mucho más rápida en el día a día, mucho más a su bola, mucho más "voy, vengo de trabajar, mi casa, mis cosas, tal… Salgo con "mis" amigos. Pero no es lo mismo que cuando llegas a un pueblo. Cuando llegas a un pueblo, aunque seas un poco la comidilla cuando llegas y la típica vieja del visillo a ver quién ha llegado, pero eso te hace que al final te integres en el pueblo y que seas uno más. En la ciudad eso no te va a pasar. (Emakumea, 30-59, espainiar jatorria, iritsi berria)*

> *La gente más sana es la de los pueblos. A mí, la gente de caserío, siempre le he tenido mucho aprecio. [Elkarrizketatzailea: ¿Qué diferencia le ves?] Le veo la diferencia de que… Yo creo que si tú no le defraudas, te da todo. Te lo da todo, las puertas están abiertas de par en par. En cambio, hay mucho más otro tipo de vida en las capitales. No hay tanta… No se puede adquirir tanta confianza. (Gizona, +60, espainiar jatorria)*

Ezaugarri horiek pertsona batzuei erakargarri egiten zaizkien moduan, beste batzuen kasuan kontrako efektua izan duela ere antzeman da. Hala, garai batean Usurbilera bizitzera etorri ziren hainbat pertsonek halako batean herritik alde egitea erabaki dute, hirigune batek eskaintzen dituen aukerak erakarrita sarritan. Aspektu horretan, Usurbili kontrapuntua egin dion gertuko adibide bezala Lasarte-Oria aipatu da: hirigunetik Usurbil bezain gertu baina Donostiako prezioak baino baxuagoekin, pertsona ugarik burutan izan duten udalerri moduan pertzibitzen da, eta Usurbilekin hainbat pertsonek gaur egun duten harremana ulertzeko gako moduan interpretatzen da.

> *A: Hona etorri ziren erdaldunek Lasarte aldera gehiago jo dute. Edo auzo txiki batean ez dira ondo identifikatzen, edo ez dakit zergatik. Lasartera jo zuten askok, eh. Askok eta askok.*
>
> *B: Egia da. Hemengo askok ere ohitura daukate Lasarteko merkatura joateko, jendea, hango… Behar dute. Behar dute.*
>
> *A: Eta aldamenean dauzkadan nigeriarrek ere badute joera hori. Bai, bai, hara joateko. Gero, klaro, hemen ez dago, baina han ere beren mezak eta beren gauzak dauzkate. Eta bueno, igual horregatik ere bai. Baina Zarautz aldera-eta ez. (Emakumeak, 30-59 eta 60+, Usurbilen jaioak)*

Iritsi ziren pertsonak Usurbilera egokitzapen-prozesu bat izan zuten moduan, esan daiteke herriak berak ere egokitzapen-prozesu propio bat egin zuela hamarkada gutxitan izan zuen biztanleria-hazkundeari erantzuteko. Hain zuzen, garai horretan sortzen edo hazten dira auzo ugari, Polígono 42 eta Santuenea esaterako. Horren seinale da gaur egun oraindik auzo horiek mantentzen duten osaera: espainiar jatorriko pertsonak, hamarkada haietan migratu zutenak, dira bertako auzokideak nagusiki, oraindik belaunaldik aldaketarik ez delako gertatu.

> *[Munalurra, Polígono 42] No ha cambiado mucho. [Elkarrizketatzailea: ¿Aún sigue la primera generación que llegó cuando se hicieron las casas?] Sí, sí, sí. […] Ahí hay andaluces, extremeños, hay euskaldunes, hay de todo. […] Casi todas [las viviendas] son propias. [Migración reciente] poca, sí. Ya te digo que la mayoría son los primeros, los que están de antes. No se ha movido mucho ese barrio. (Emakumea, +60, espainiar jatorria)*

Espainiako beste lekuetatik lan bila etorri ziren migratzaileen esperientzietan, sarritan egokitzapen fase bat oroitzen da lehen urteetan: Usurbilen bizitza-proiektu definitiboa sortu aurretik eta egoera ekonomikoa egonkortu arte, lehenengo urteetan bizimoduan berezitasun batzuk adierazten dira. Horien artean bereziki pisua hartzen du etxebizitzaren kudeaketak lehenengo urteetan. Oro har, beste jende batekin konpartitutako etxebizitzen ereduak jasotzen dira: baserrietan apopilo moduan egonda edo egoera berean zetozen beste pertsona batzuekin etxe bera konpartituz pasa zituzten hainbatek lehen urteak. Gaur egungo migrazioan errepikatzen den fenomenoa da honakoa; hau da, normalean komunitate bereko eta bestela antzeko egoera bizi duten pertsonekin etxebizitza bat partekatzea lehenengo aldian, eta egonkortasun gehiago lortutakoan bilatzea norbere bizitza-proiektura hobeto egokitzen den bizileku bat.

> *Era una casa grande, me acuerdo, con un comedor enorme con una mesa enorme en la mitad. Y vivía una familia que también era de Salamanca, de otro pueblo. Y luego vivía en una habitación vivía una [mujer] que es de aquí. Ella estaba en una habitación de la casa, y luego nosotros alquilamos otra habitación, mis padres alquilaron una habitación con derecho a cocina, que se usaba mucho entonces. Y ahí estuvimos un año y pico hasta que hicieron el bloque ese. Y luego allí mis padres alquilaron un piso y nos fuimos allí, al bloque ese. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)*

> *Nik goraintzia daukadana da 70. urtetikan ezagutzen hasi nintzela jende asko kanpotik etorritakoa eta lanean, elkarrekin lanean, [Michelinen] fabrikan. Eta jeneralean, jeneralean jendea oso umila*

> *etortzen zen. Etxe bakoitzean sartzen ziren familiako hiru matrimonio igual, sukaldea konpartitu eta… Segituan hasten ziren dirua osatzen. Kooperatiba antzeko zerbait egiten zuten. Aurrena egiten zuten etxe bat erosi denen artean, gero bestea denen artean baita ere, eta nik ezagutu nituen hiru anai, hiru matrimonio, hori egindakoak. Bakoitzak beren etxea osatu arte denak elkarri lagundu. Eta denak etxe onarekin. (Gizona, +60, Usurbilen jaioa)*

Oro har, harrera ona izan zutela baloratzen dute. Herrira iritsi zirenen aldetik hala sumatzen da, eta garai hartan Usurbilen bizi ziren eta harrera gizartearen parte ziren herritarrek ere sentimendu bera partekatzen dute. Izan ere, herrian garai hartan inpaktu positiboa ekarri zuela migrazioak eta halako harrera jaso zutela baloratzen da:

> *Y muy bien, lo demás. Yo me he integrado aquí, no echo nada en falta… Estoy muy a gusto, la verdad. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)*

> *Ondo hartuak izan ziren, eh. Ondo hartuak. Porque barrioari lagundu egin zioten. Jende batzuk… Diru eskasia zegoen, ez zen orain bezala. Eta orduan hartu zituzten etxean lo egiteko, "apopilo" esaten zitzaion. Etxean lo egiteko eta… Gure etxean ere egon ziren. Eta orduan, nik uste dut ondo hartuak izan zirela. Eta beraiek ere mesede egin zuten. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*

Edozein kasutan, herrira iritsi eta ez da segituan bilatzen norbere lekua. Denbora bat igaro ondoren sortzen dira harreman sareak eta sortzen da "herrian bizitzearen" sentimendua. Trantsizio garai horrekin lotzen den ezaugarri moduan, hainbatetan aipatu da euskaldun komunitatearen "hoztasuna" eta harremanak eraikitzeko zailtasuna:

> *Yo siempre lo he dicho: el vasco es un poco cerrado, le cuesta darte amistad. Pero si te la da, no te la va a quitar, eh. Si te la da, puedes contar con amigos hasta el final. Yo tengo gente que para mí ha sido muy buena, la verdad. (Emakumea, +60, espainiar jatorria)*

Trantsizio edo egokitzapen garai hori, aztergai dugun lehenengo migrazio-olatuan ageri zaigun moduan, bigarrenean ere errepikatzen den zerbait da:

> *Al final yo no tenía relaciones con gente de mi edad en Usurbil de los catorce hasta que tuve diecisiete o así. Sí que hacía vida en el pueblo, porque con mi amiga rusa, pues nos gustaban mucho las fiestas de Usurbil. Nos encantaba venir. Nos gustaba participar en Usurbil, pero no como… Yo no como alguien que vive en Usurbil, sino como alguien que estaba ahí el día. […] También estuve apuntada en zumba, y también eran mujeres mayores. (Emakumea, 30 urtez azpitik, jatorri latinoamerikarra)*

LABURBILDUZ (USURBILERA IRITSIERA ETA EGOKITZAPENA)

- Usurbilen **herri izaera**k (txikitasuna, lasaitasuna, segurtasuna…) pertsona hauek bertan geldiaraztea ekarri dute, nahiz eta beste batzuk joan egin diren aukera kosmopolitagoen bila. Herri izaera hori jendearekin harremana sortzeko aukera moduan ulertzen da.
- **Auzo batzuk** XX. mende erdialdeko migrazioak eraginda sortu edo handitu ziren, eta oraindik gaur egun dituzten ezaugarriak fenomeno horrek eraginda daude (bizilagunen jatorria eta adina, esaterako).
- Hasierako urteetan, ondoren "integratuta" sentitzera iritsi direnek ere **egokitzapen-garai bat** adierazten dute lehenengo migrazio-olatuan iritsitako pertsonek, bigarrengokoekin antzekotasun handiak dituena:
  - eraman zuten bizi-proiektuarekin lotuta (etxebizitzak behin-behinean beste batzuekin konpartituz egonkortasun gehiago lortu arte) eta
  - herritarrekin eta herriarekin harreman eta identifikazioa sortzeko hasierako zailtasuna tarteko.

1.3. EGUNEROKO BIZITZA USURBILEN

Lehen denboraldia pasata, Usurbilera iritsitako pertsonak egunerokotasun bat eraikitzen hasten dira pixkanaka-pixkanaka, eta Usurbilen ordurako bizi ziren herritarrekin batera udalerriko espazioak konpartitzen dituzte beren bizimodua egiteko. Eguneroko bizitza horretan eraikitzen diren harremanek, martxan jartzen diren mekanismoek eta aurrera begirako proiekzio eta asmoek ematen diote forma usurbildar bakoitzaren esperientziari.

Atal honetan, duela mende erdia etorritako migrazioaren esperientzia oinarri hartuta, aspektu horri begiratuko diogu: egunerokoan sortutako bizimoduek dituzten ezaugarriei, horrek pistak eskaintzen baititu desberdinen arteko ezagutza eta interakzioa sortzea ahalbidetu duten espazio eta aukerei buruz, eta baita erresistentziak eragin dituzten faktoreei buruz ere. Honako eremuak hartuko ditugu kontuan: lan-eremua, eskola, aisialdia, euskararen aldagaia eta auzo zehatz baten errealitatea.

1.3.1. **Lana**

Hasieran azaldu den moduan, Usurbilen izandako garapen ekonomikoak erakarritako migrazioa izan zen XX. mendekoa, nagusiki industriarekin lotua. Horrez gain, modu orokorragoan esan daiteke belaunaldi hartako herritarren bizimodua egituratzeko oinarrizko elementuetako bat izan zela lanaren aldagaia, migratzaileak izan edo ez. Hala, soldatapeko lanaren bueltan ardazten da elkarrizketatu gehienen esperientzia, eta familia-unitate guztiena: sagardotegiak, Lizarraga, Angulas Aginaga… Pobrezia handiagoa bizi izan zen garai ez oso antzinakoen oroitzapenak ere eragin izan zezakeen lanarekiko ikuspuntu horretan.

B: Hau pobrea zen, oso pobrea zen lekua garai hartan, eh. Orokorrean, Usurbil. Nekazaritza munduan, oso eskasa.
A: Oso pobrea. (Gizonak, +60, Usurbilen jaioak)

Siempre he trabajado fuera también. Y lo demás nada. Trabajaba en mi casa… Pues tampoco tenía tiempo de andar fuera de casa. (Emakumea, +60, espainiar jatorria)

Lan-merkatuan zeuden lanetan, ez zen desberdintasunik sortzen jatorriaren arabera: Usurbilen jaiotakoa izan, Euskal Herriko edo Espainiako beste leku batetik etorria, euskaraz jakin edo ez… Lanpostu berak okupatu zitzaketela eta okupatzen zituztela baloratzen da, lan-merkatuko segmentaziorik gabe.

A: Nik uste dut bere horretan ondo atera zela, lana zeukatelako.
B: Lana zegoen.
A: Etortzen ziren ya… Eta gainera etortzen ziren… Etortzen zen igual familia bat, eta beren herrian uzten zituzten el cuñado, el hermano y el perro. Eta orduan, hemen pixka bat hasten zirenean asentatzen, asentatzen zirenean, deitu egiten zieten. Orduan, ba haiek handik etortzen ziren eta hau iruditzen zitzaien zerua. Pixkanaka, bai Michelin, bai Luzuriaga, Ingemar horrek, dena… Horrek asko-asko. Eta hemengo, hor hasi ziren ofizinetan-eta, hamalau urtekin hasten ziren. Eta bueno, egiten ziren jauntxo. […] Y se hacían ricachones. Eta hemengoak ere bai, eh. Hemengoak ere bai joaten ziren horra lanera, eta igual pasatzen zitzaien. Ez zen vasquitos y castellanos, eh. (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)

Edozein kasutan, immigratzen zuten pertsonen aldetik estatus baxuagoko lanak egiteko prestutasun handiagoa izaten zela baloratu da:

Eta nik gogoan daukadana da hemengo jendeak orduan, hemengo semeak, 70. urtean eta horrela, ya pixkat bizimodua hobetzen hasi zenean, edozein lan ez zuen egin nahi hemengo jendeak. Edozein lanetan ez zuten sartu nahi. Orduan, kanpotik etorri zirenak okupatu zituzten obrak, lan zikin samarrak okupatu zituzten kanpotik etorri zirenek. Zer gertatu zen? Kanpotik etorri zen jendeak egin zela igo ur-aparra bezala. Ez zeukan inongo ilusiorik, dirua irabazi egiten zuten, eta jabe izatera pasa ziren beren etxe eta zerekin. Hemengo semeei gertatu ez zitzaiena. Beren handitasunean eskasago gelditu ziren kanpotik etorritakoak baino, garai hartan. Eta nik gaur ere jende asko ezagutzen dut orduan etorritakoa, eta haiek ezagutzen ditut asko lehengo etxeak saldu, etxe hobea pasa edo bigarren etxebizitza erosi garaje eta guzti, jubilatutako jendea oso ondo bizi dena. Eta merezi dute, zergatik hainbeste lan egin zuten… Igual egunean 12 ordu egiten zituzten lana, guk bezalaxe. (Gizona, +60, Usurbilen jaioa)

Eremu edo sektore berdinetan lan egiteak pertsonen arteko harremanak sortzea eta komunitate desberdinetako kideen interakzioa ahalbidetzen zuen lan-eremutik bertatik hasita. Horrez gain, kasu batzuetan lankideen harremanez gaindi, bestelako lotura sozialak eraikitzeko ere balio izaten zuen lanak. Alde horretatik, XX. mende erdiko migrazio olatuan eta XXI. mende hasierakoan fenomeno berdinaren adibideak jaso dira: etxe barruetan, eremu pribatuko zaintza lanek norbanakoen arteko harremanak sortzeko bide eman dute, enplegatu eta enplegatzaile logikaren baitatik abiatuta beti ere.

Empecé a cuidar niños con diez años, cuando vine. Iba al colegio por las mañanas, todo el día. Y por las tardes, cuando salíamos, iba a cuidar niños. Y ahí estuve hasta que me salí del colegio, hasta los 14 años, cuidándoles. Entonces casi todas las casas tenían a una chica para cuidar a los niños. Nos hablaban en euskera ellos a nosotras [ríe]. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)

Antzerako egoera gertatzen zen beste kasu bat dendetakoa da:

Kanpoko jendearekin nik [harremana] hona [zentrora] etorriz geroztik, denda jarri nuen hemen [zentroan] eta… (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)

1.3.2. **Eskola**

Lan-eremua jatorri desberdineko pertsonen enkontrurako espazioa zen moduan, eskolak ere aukera bera eskaintzen zuen adinez txikikoentzako.

Eskolan denok joaten ginen a la Escuela Nacional. Eta han ziren erdaldunak, klaro, erdaldunak eta euskaldunak. Eta nik eskolan ez nuen ikusten horrela arrazismoa. (Emakumea, +60, Usurbilera txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)

Yo empecé a las monjas en Kalexar y siempre he andado con, he tenido amigas euskaldunas. Y muy bien. […] Casi todas eran de aquí. Porque de mi edad no había muchas. La verdad es que de que vinieran así de fuera no había. Y yo, pues como íbamos al colegio todas juntas, pues yo me… Pues con las que más… No sé. Y bien. Además, en el colegio tampoco tuve ningún problema. Me llevaba bien con todo el mundo. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)

Desberdintasunik gabe eramaten ziren haurrak Jesuitinetara, Kalexarreko mojetara, fraileetara edota eskola nazionaletara.

Mi hija al público. […] Mi hijo fue a la ikastola, lo que era la ikastola, y luego ya pasó a San Sebastián. […] Porque era de aquí del pueblo y estaba cerquita. (Emakumea, +60, espainiar jatorria)

Beren seme-alaben belaunaldiari erreparatzen hasita, baina, egoera aldatu egiten da. Hezkuntza sistema oro har aldaketak bizitzen ari zen, eta Usurbilen zehazki 80. hamarkadaren hasieran ikastola izaera hartu zuen gaur egun bertan dagoen eskola bakarrak, Udarregik. Batzuek zoriontsu deskribatzen dute fenomenoa, "seme-alabek euskara hizkuntzan ikasteko zeukaten grina" oroituz. Era berean, baina, guraso espainiarrak zituzten haur gutxi gerturatzen zirela baloratzen da:

[Elkarrizketatzailea: Ikastolara gerturatzen ziren guraso espainiarrak zituzten umeak-eta?] Oso gutxi. Oso-oso-oso gutxi. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)

Beste aldean, baina, jaso dira saiakerak Espainiako beste txokoetako pertsonen aldetik beren seme-alabak ikastolara eramateko. Kasu batzuetan, pertzepzioa izan da, arrazoi bat edo bestea tarteko, ez zirela ongi hartuak bertan:

Fui a la ikastola para llevarla aquí a donde iba la otra [hija], y me pusieron pegas. Me dijeron que no porque no había plaza, que tenía que llevarla a Lasarte, que no sé qué, que no sé cuántos, el director. Y digo: "¿Sí? Pues entonces saco a la otra. Si no hay plaza para una saco a la otra". Y las metí en las Jesuitinas a las dos. Y luego me llamó el director y me dijo que sí que tenía plaza. Y le dije: "Pues ya lo siento, pero ya ha empezado en otro colegio". ¿Pero sabes por qué? Y eso les ha pasado a más que a mí. Porque iban donde esta señora hasta los seis años. [Elkarrizketatzailea: ¿Donde se cuidaba a los niños quieres decir?] Sí. Que les enseñaba de todo. Iban muchos niños. Y por eso no le cogieron en la ikastola. [Elkarrizketatzailea: ¿Por qué?] Porque no les gustaba, claro. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)

Hala, 80-90. hamarkaden artean ikasketak aurrera eraman zituzten pertsonei buruz pentsatzerakoan, euskaldun komunitatea eta erdaldunaren artean desberdintasunak egon bazeudela baloratzen da:

Yo pienso que ellas [mis hijas] habrán tenido sus problemas, en aquellos tiempos, para estudiar. Habrán tenido problemas, porque también había, como decíamos antes, los mayores: por un lado, aquí había también críos vascos y los nacionales. Había también, en aquellos tiempos, creo que había algo de diferencia. (Gizona, +60, espainiar jatorria)

A: [Ikastolan] Nik daukat oso-oso barneratuta ikastolan ginela euskaldunon taldea, gure taldea, eta kastellanoak. Aparte bost-sei bat izaten ziren, aparte egoten ziren. Ez da gaur egun bezala…
B: Ez, eta gaur egun ere bai. […] Badago elkarren arteko… Bai, es que batzuk dira beti. Eta gurasoak askotan dira baita ere euskararen kontrako…
A: Ya, hori motibatzen dutenak. Ba ni gogoratzen naiz aparte egoten zirela.
B: Ez da bakarrik umeek zer egiten duten; ez, nondikan datorren hori.
A: "Kastellanuak", gainera, deitzen genien. "Kastellanuak" ziren. Ikastolara joaten ziren, baina aparte ematen zitzaien haiei klasea, bai. (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)

Edozein kasutan, badaude bestelako esperientziak ere, etxetik euskaraz hitz egiten zuten eta gaztelaniaz hitz egiten zuten pertsonen artean eskolan hartu-emana egon zela adierazten dutenak. Are gehiago, etorkizunean izan den eraginaz hausnartuta, ikastolak euskara gaitasuna bermatzeko izan duen balioa positiboki ikusten da.

Ni ondo moldatzen nintzen. Ez daukat así, inongo arazorik. Adibidez, nire auzoan jolasten ginenean, bazeuden batzuk nire adinekoak nazionalera joaten zirenak, eta orain adibdiez ez dakite… Nire maila ez da kristorena, baina bueno, behintzat saiatzen naiz hitz egiten. Baina hori, adibidez hoiek ulertzen dute baina ez dakite hitz egiten, egia esateko. Edo nabaritzen da maila ez dela berdina. (Gizona, 30-59, Usurbilen jaioa eta jatorri espainiarreko gurasoak)

1.3.3. **Aisialdia**

Aisialdia gertuko harreman-sareekin erlazionatzen dute elkarrizketatuek. Horien artean, hiru eremutako pertsonak dira esanguratsuenak: familiakideak, auzokideak eta –haurtzaroaz oroitzen diren edo haurrak dituzten pertsonen kasuan- eskolako komunitatea.

Solía andar mucho con mi hermana. Luego también con mis padres, cuando estaban aquí, con los amigos de aquí, gente de por aquí del barrio. Solíamos andar por ahí con los chavales, con los hijos nos juntábamos y solíamos andar por ahí. […] Y la gente del barrio [Polígono 42], para andar con ellos, con los críos y así por aquí, pues gente de Palencia, de Rentería… De los que vivíamos en el barrio éramos un grupo… De Zamora también había gente. (Emakumea, +60, espainiar jatorria)

Nire kuadrillan bazeuden eskolako lagunak eta ikastolako lagunak eta auzoko lagunak. Eta denok elkarrekin jolasten ginen. (Gizona, 30-59, Usurbilen jaioa eta jatorri espainiarreko gurasoak)

Auzokako lagun-taldeen antolaketa horrek, atzean, hiztun-komunitateen araberako banaketa bat ere eragiten zuen. Izan ere, Santuenean gelditzen zen Espainiako beste lekuetatik etorritako erdaldun kopuru esanguratsu bat eta euskaldunak, berriz, kaxkoan.

A: [Gu] euskaldun jendearekin. Ni erdaldun jendearekin gutxi ibiltzen nintzen.
B: Hombre, lagunak ez, porque lagunak oso zaila da.
A: Ez, Santueneako neska Santueneakoekin ibiltzen zen. Eta gero, komunioa egin genuenean ere, erdaldun jendea ere egongo zen, baina ez dakit egin zuten komunioa edo ez zuten egin. Listan ez daude behintzat. […] Eskolan bai [genuen harremana]. Baina gero eskolatik ateratzen zirenean, eta beraiek joaten ziren beren auzora. Santueneara joaten ziren. Eta gu hemen gelditzen ginen jostatzen-eta. (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)

Helduarora gerturatu ahala, aisialdiko denbora Usurbilen igarotzeari inguruko herrietara egindako desplazamenduak gehitzen zaizkie. Herrian bertan arratsaldeetan edo tarte libreetan gelditu eta taberna edo kafetegien bueltan zerbait hartzeko ohitura aipatzen da, paseatzekoa eta baita ikastaroetara edo antolatutako jardueretara gerturatzekoa ere. Baina inguruan aisialdiko eskaintza zabalagoa zegoela baloratuta, bestelako jarduerak ere aipatzen dira:

En Usurbil era eso: o andar por el pueblo o los bares, porque no había cines ni hay nada. No podías ir a muchos sitios más. […] Solíamos ir a la playa a Donosti, o a Getaria, a Zarautz, a Orio. Con los chavales, solíamos salir mucho al monte. (Emakumea, +60, espainiar jatorria)

Une horretan, Usurbildik iretzerakoan, euskaldun eta erdaldunek ez zuten elkar topo egiten. Inguruko herrietara desplazatzeko ohituretan, euskaldun eta erdaldun komunitateek joera desberdinak izan dituztela adierazi da, herri desberdinetara joateko ohitura omen zutelako:

Gu hasten ginenean ya astebukaeretan ateratzen, gure joera zen Zarautzera joatea. Beraiek ez. Beraiek joaten ziren Hernanira, Errenteriara eta gero, pixkat helduagoak egiten zirenean, joango ziren a La Perla. Hemen diskoteka bat zen, denak erdaldunak. Bai. Gu joango ginen Flash edo Náutico… (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)

Luego ya cuando hicimos los catorce años íbamos a Lasarte al baile. […] Íbamos los domingos a Lasarte, porque había baile en la plaza. Se armaba un baile que no veas. Íbamos una cuadrilla muy maja, chicos y chicas. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)

Bestelako esperientzia bizi izan dute Usurbilera zuzenean iritsi ez diren pertsonen kasuan, edo Donostia erreferentzia moduan hartuta Usurbil gertu dagoela bertaratu diren pertsonei dagokienez. Harreman sareak aurrez ezagututako espazioetan sortu dituztenez, Usurbilekin aisialdi garaian loturak sortzea ez dela lehentasunezkoa izan adierazi da. Fenomeno hau, aurrerago ikusiko den moduan, gaur egungo migrazioan ere presente dago:

Yo he tardado mucho en conocer a la gente, porque yo tampoco no me identificaba. Yo, como había vivido en Donosti, para mí era dormitorio. Trabajaba de comercial, me íba a la mañana y volvía a la noche. Y los fines de semana, donde tenía a la cuadrilla era en Donosti. Entonces, me costó mucho a mí conocer a la gente. Mi mujer la conoció antes que yo, imagínate. (Gizona, +60, espainiar jatorria)

1.3.4. **Euskara**

XX. mende erdialdeaz dituzten oroitzapenak gogora ekartzen direnean, Usurbil udalerri oso euskaldun moduan oroitzen da. Era berean, baina, euskara debekatuta zegoen garai hartan, eta beraz ezin zuen presente egon espazio publikoetan eta ezta eskolan edo lantokietan ere. Testuinguru horrek erabat markatu du orduko kudeaketa linguistikoa, gaur egungoarekiko bereiztuz, eta baita garai hura bizi izan zuten herritarren esperientzia ere, iritsi zirenena eta bertan bizi zirenena.

Hizkuntzen kudeaketan aldagai ugari sartzen dira, eta ñabardura ugariko argazki bat sortzen da garai eta leku bakoitzean. Elkarrizketatu ditugun pertsonen artean ez da egon 50 eta70 urte bitarteko hamarkadetan heldua zela etorri, euskara ikasi eta gaur egun aktiboki erabiltzen duen pertsonarik; posible da pertsona horiek bestelako gerturapen bat izatea garaiko egoera linguisitikora eta euskararekiko sortu zuten harremana ezagutzeak aberastuko luke ikuspegia aniztasun linguistikoa ulertzeko, baina ikerketa honen mugetatik kanpo gelditzen da. Hala ere, elkarrizketatu diren pertsonen artean maila desberdinetako gerturapenak daude euskarara. Testigantzetako batean, adibidez, islatuta gelditzen da harreman sozialen esparruan gerturatutakoan euskarara gerturatzeko aukerak ere zabaltzen direla, kasu honetan lanaren mundutik:

Yo aprendí el euskera cuidando a los niños, fíjate. Porque ellos hablaban todo euskera, y en casa también. Entonces yo, por narices, tuve que aprender. […] [Con los amigos] siempre hablábamos en castellano. No sé, quizás… Pues no lo sé, no te puedo decir. Pues como en la escuela estábamos todo el día y hablábamos castellano, pues seguíamos hablando igual. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)

Edozein kasutan, Espainiako beste lekuetatik heldutan iritsi ziren eta gaur egun erdaldun izaten jarraitzen duten herritarren diskurtsoetan, Usurbil herri euskalduna zela adierazten da, baina modu deskriptiboan egiten da oro har. Hau da, ez da problematizatzen edo tentsio iturri moduan irudikatzen hizkuntzaren gaia:

Sí había euskaldun, sí. Sí había. Sobre todo la gente mayor. La gente mayor, sí. La gente joven, pues no tanto quizás. Pero, a ver, que yo no he notado ningún rechazo ni nada. No me he sentido en ningún momento rechazada ni nada. Me he adaptado muy bien. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)

[¿Y en la calle, en la relación con la gente, qué tal con el idioma?] Bien. Pues si no entiendes, te hablan en castellano. Luego hay algunas cosas, igual si están hablando, pues igual entiendes. Y si no entiendes, pues preguntas. O te metías en la conversación si lo entendías. Pero enseguida se daban cuenta, algunos se daban cuenta, y cuando se daban cuenta pues cambiaban. Y en las tiendas igual. (Emakumea, +60, espainiar jatorria)

Aunque a mí me han respetado siempre el castellano aquí. Pero sigo pensando que Usurbil es euskaldun, y pienso que lo defienden a cal y canto. (Gizona, +60, espainiar jatorria)

[Gurasoak] Denak elkarrekin [ibiltzen dira]: hemengoak, hemen jaio direnak, eta kanpotik etorri direnak, eta ondo, ondo. Bai, bai, bai. Igual erderaz hitz egin behar dute, baina gustora ibiltzen dira. (Gizona, 30-59, Usurbilen jaioa eta jatorri espainiarreko gurasoak)

Aldiz, euskaldunek bai sufritu zuten tentsioa. Hizkuntzaren gaia gatazka gune moduan bizi izan dutela nabaritzen da usurbildar euskaldun batzuen esperientzian, zekiten hizkuntza hitz egiteko debeku sozialarengatik eta euskaraz ez zekiten bizilagunekin tentsio uneak sortzen zituen puntu bezala sentitzen zutelako:

> *A: Nik gehiago hizkuntzarekin. Gaztetan, esan dizudan bezala auzo horretan, erdalduna eta erdalduna. Eta orduan, hango… [Bertako beste gazte euskaldunekin]-eta egin izan dute borrokan. Hor bazegoen, hor bazegoen.*
> *B: Eta gero beraiek ere bazuten, eh, bazuten. Nik oroitzen dut, joaten ginen dantzara Lasartera, eta euskaraz egiten genuen bi neskak ere tartean dantza egiten genuen. Eta etortzen zen eta: "Habla en cristiano". (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)*
>
> *B: Bakarrik sufrimendu bakarra gurea izandu zen erderaz ez genekiela tutik. Eta hor eman zigutela egurra, baina buf!*
> *A: Maisuek eta denek, erderaz egin behar genuela, eta jolin. Orduan "sí" esaten jakin ez eta dena erderaz egin behar. Hori, aurreneko zera hori… Kanpotik etortzen zirenak igual euskara ez zuten ulertuko, baina guretzako ere izan zen kontrako zera bat. (Gizonak, +60, Usurbilen jaioak)*
>
> *Guk [lantokian] komedore bat erabiltzen genuen. Eta ez genuen desberdintasuna egiten: ez beraiek gurekin eta ez guk beraiekin. Orain, hizkuntzan bai. Hizkuntzan, hitz bat ere ez zuten euskaraz egiten beraiek. Dena-dena-dena erderaz. O sea, guk jarri behar genuen. Nahiz euskaldunak hiru pertsona izan mahai batean, guk jarri behar genuen. Hori gaizki hartzen zuten batzuetan beraiek. Egiten zuten, ba deskonfiantza. Hirurok ari baginen -nik baneuzkan beste bi lagun- euskaraz, beti "ra!" saltatzen genuen porque beldurra ea berak gaizki hartuko ote zuen. […] Esan nahi dut berak ere, alde batera, pixka bat, hona etorri da eta gure hizkuntza da, eta berak ere pixka bat onartu behar lukete. Baina ez ziren asko… Horregatik esaten dut, guk errespetua beraiei handia geniela. Handia genien, porque gu doblegatzen ginen beren zeran. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*

Kontrako aldean, euskaldunen artetik ere adierazten da euskaraz ez zekitenei erreferentzia egiteko erabilitako termino baloratiboak ere erabiltzen zirela:

> *Guk erderaz ez genekien eta haiek euskaraz ere ez. Orduan, ba hemen bi edo hiru hilabetean denok ulertzen ginen elkarrekin. Eta ez zen izaten ume bat erdalduna zelako… Bueno, umetako zerak bai, "Mantxurriano" deitu eta holako zerak bai, baina bestela guk hemen ez dugu… (Gizona, +60, Usurbilen jaioa)*

Garai haiek atzean utzita, gaur egun ere bi komunitate bereiztu daudela antzematen da: euskal mundua eta erdal mundua. Aurrez jaso den moduan, okupatzen diren espazioak eta jarduerak desberdinak direla baloratzen da neurri batean (herrian auzokako banaketa bat identifikatzen da, eta aisialdian ere joera desberdinak). Hizkuntzarekiko gerturapenari dagokionez, Espainiatik garai hartan etorritako pertsonen artean elkarlotutako bi argudio erabiltzen dira euskaraz ez ikasi izatea justifikatzeko: gazte ziren garaian debekatua zegoen eta heldutan ikasten hastea oso zaila da. Bi argudio horien nahasketatik eratortzen den ondorioa egoera aldatzeko zailtasuna edo ezintasuna da.

> *Que la gente que nace ahora, que sepa euskera pues me parece -porque ahora está permitido- me parece hasta necesario, obligatorio. Pero hombre, una persona que tiene 70 años o 65, obligarla a que aprenda euskera me parece un poco absurdo. Por lo menos yo pienso así. Pero con eso no quiero decir que no se haya identificado como euskaldun. A lo mejor es tan euskaldun como el que está obligando a hacer euskera, obligar a estudiar euskera. Eso es mi opinión. Y eso habría que respetarlo un poco. […] Yo, si en vez de aquí me hubiera ido a Francia, me hubiera ido hablando francés. Porque no me quedaba más remedio. Y si me voy a Inglaterra, lo mismo. Lo que pasa es que aquí estaba prohibido. […] Pero, a mí, encantado. Lo que pasa es que a una persona de cierta edad, ponerse a hacer un cursillo de euskera, tiene que gustarle mucho. (Gizona, +60, espainiar jatorria)*

Gauzak horrela, gaur egungo egoeran ere zailtasun gune izaten jarraitzen du hizkuntzaren gaiak belaunaldi helduenaren artean. Euskaldun eta erdaldunak elkartzen diren une zehatzetan sor daitezkeen egoerek mahaigaineratzen dute errealitate hori noizean behin:

[Talde bateko kide bati buruz, euskaraz ez dakiena] "¿Por favor me explicas?". Eta klaro, hemen elkarte guztian bera bakarrik dago [euskaraz ez dakiena]. Eta askotan… […] Askotan gelditzen zara… "Euskaraz egin ezak!". Bai, baina… Orduan egiten zaitu pixka bat… Kontraesana ez da baina pixka bat obligatu egiten zaitu erdara solta beharra edo… (Gizona, +60, Usurbilen jaioa)

Hemengo bileretan, […] aurreneko galdera, zinegotziarena: "Bueno, nola nahi duzue hitz egitea?". Euskalduna aldamenean, euskalduna, euskalduna, euskalduna; sei euskaldun, hiru erdaldun. "En castellano, que entiende todo el mundo". Aldamenekoak: "Ni euskaraz hobeto moldatzen naiz baina…" Ixil-ixilik. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)

Eta, bestetik, erdalunen artean Noaua aldizkariaren erreferentzia egiten da sarritan, euskara hutsean delako kritiko agertuz eta bereiziak sentiarazten dituela adieraziz:

De hecho, hay una revista aquí, el Noaua, que no ponen nada en castellano. Y yo les he dicho que los de fuera también tenemos derecho a leer la revista, que podrían poner en bilingüe por lo menos. Y se niegan, porque dicen que "euskera, euskera, euskera". Como si te gusta bien y si no también. Y defenderlo de esa manera… […] Porque a mí me viene la revista, que es gratuita, y yo no puedo… Tienen que decirme las hijas lo que escribe. Y eso es pena, es pena. Y eso no puedo decir que está bien. […] Porque siempre, esa gente que hemos hablado antes de que se sentían españoles y no identificados, más se van a sentir así con esa revista. ¿Sí o no? Más esa persona que se sentía apartada del euskaldun, pues con esa revista se va a sentir más español. Digo yo. (Gizona, +60, espainiar jatorria)

Alabaina, nahiz eta urte haietan Espainiako Estatutik iritsitako pertsona batzuek euskara ikasi ez izan, elementu positibo moduan azpimarratu da bigarren belaunaldiaren kasuan, euskaraz ikasteari garrantzia eman zaiola eta hizkuntzaren transmisioa bai bermatu dela, etxeko sozializaziotik kanpo egindako hautuekin:

Baina bueno, gauza bat behintzat onartzekoa da: beren seme-alabek ikasi egin dute. Eta bueno. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)

[¿Tenían relación con gente euskaldun?] Sí. Mi nuera y mi yerno son… Son del pueblo, vamos. (Emakumea, +60, espainiar jatorria)

[Eskolatik irtendakoan harremanak zein hizkuntzetan izaten ziren lagunekin] Ba biak batera, bai. Batzuekin erdaraz hitz egiten genuen eta beste batzuekin euskaraz. Es que hor auzoan bazeuden denetarik. Baina ulertzen zuten, eh. Nik ere bai eta denek ulertzen genuen. Euskaraz edo erdaraz, ulertzea bai. […] Denok ondo hitz egiten dugu euskaraz. Nire arrebak ondo hitz egiten du euskaraz, nik baino hobeto [barrez]. (Gizona, 30-59, Usurbilen jaioa eta jatorri espainiarreko gurasoak)

Bigarren belaunaldia euskaldundu izateaz gain, hirugarren belaunaldiarekin (bilobena) beste pauso bat eman dela baloratu da: euskara ikasteari balio handiagoa aitortzea, eta kasu batzuetan hirugarren belaunaldiaren garaian euskarara gerturatzeko pausoak edo hizkuntzarekiko interes handiagoa nabaritu dira. Ildo horretatik, aipagarria da hainbat elkarrizketetan errepikatutako esaldia izan dela "biloba *guztiek* euskaraz oso ondo hitz egiten dutela".

A: Nik uste dut erdaldunak orain inoiz baino hobeto daudela hizkuntzaren gaian. Ume txikiak nola joaten diren ikastolara, haiekin aiton-amonak ikasten lau edo bost hitz edo horrela. Eta gero, gainera, beraiek… [Bere elkarrizketa-kideari esanez] Lehengoan ere elkarrekin ginenean, ez dakit konturatu zinen, baina, [nonbaitera] joan ginenean emakume erdaldun horrek euskeraz egiten zien. Nik ezagutu nuen bere alabak txikiak zirenean. Eta bueno, zen…
B: Te sube un estatus.
A: Eta pentsatu nuen… Ez nizun ezer komentatu, baina "begira…".
B: Estatusez altxatzen zara baldin badakizu euskara eta. Te sube un estatus, hombre. […] Seme-alabak akaso ez bidali ikastolara, baina nola jende gaztea asko ezkondu den beren artean, orduan ume txikiak bidali dituzte, la tercera generación bidali dute ikastolara, eta ya aiton-amonak ikusten duzu denak "que ya sabe euskera, que ya sabe euskera". (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)

Espazio pribatuetan euskararekiko kudeaketak iritzi desberdinak sortzen baditu ere, aipatzekoa da elkartegintzaren eremuan jasotako ikuspegi bat: hain justu, elkarrizketatutako pertsonen artean, erdaldunak edo euskaldunak izan, ados agertu dira elkartegintzako pertsona erreferentzialen kasuan euskara jakitea garrantzizkoa dela baloratzerakoan. Hala, espazio publikoan euskararen presentzia eta bermearen inguruan "adostasun" bat badagoela dirudi.

> *Yo siempre he preferido que la persona cabeza visible [de la asociación] fuera nacida aquí, pa' presidente, y que hablara euskera. ¿Por qué? Porque yo puedo ayudar, pero desde fuera. […] Creo que es conveniente. Creo que a la hora de cualquier cosa o cualquier gestión, si él entiende el euskera, esa persona, para reuniones, para cosas, pues siempre… Oye, que hay un pleno en el Ayuntamiento en euskera: yo no puedo ir a ese pleno. Pero esa persona, si es euskaldun, puede ir a ese pleno. Y puede después explicar en castellano. (Gizona, +60, espainiar jatorria)*

> *Me eligió a mí para un cargo porque dice: "Tú que sabes euskera, tú tienes que ir conmigo a reuniones y todo, que tú entiendes". […] Yo he venido a reuniones. Normalmente hablan en los dos, pero ya me dijeron un día: "¿Ya entiendes?". Digo: "Sí, te entiendo. A ver, no te pillo todo […], pero sí." Y bueno, así. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)*

> *Nik bai nahi dut hemen, [elkarte] hau gidatzen euskaldunak egotea baita ere. Denetikan dago, eh, baina euskaldunak ere bai. Eta dauden erdaldunak ere irekiak. Hemen badago oraindik jendea, pues "¿Por qué no habláis castellano? ¿Por qué no sé qué? ¿Por qué no sé cuántos?". Arriskutsua izan daiteke auzoaren euskararen joerarentzako, ezta? Eta horrek ere pena ematen dit. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*

1.3.5. **Auzoak: Santuenea**

Usurbilen auzo batzuk sortu edo hazi egin ziren garai hartan: Polígono 42 (gaur egun Munalurra) eta Santuenea izan daitezke adibide garbienetakoak. Orduko bizimodua egituratzerako garaian auzoak ardatz garrantzitsu bat ziren, eta aisialdia eta harremanak gune geografiko horien baitan garatzeko joera handiagoa zegoela dirudi. Gaur egungo errealitatean lausotuagoak daude auzo izaerak, baina kasu batean oraindik indar berezia edukitzen jarraitzen du, Santuenearenean zehazki. Horregatik, atal bat eskainiko diogu auzo honen sorrera eta konfigurazioari, ezaugarri horiek orainaldian duten oihartzuna ulertzen lagunduko digutelakoan.

Santuenea auzoa bezala ezagutzen dena izen bereko baserri batetik izendatu zen[3], eta aztergai dugun migrazio fenomenoaren iritsierarekin bateratsu eraiki ziren bertako etxebizitza ugari. Hala, inguruko industrian lana bilatu zuten jatorri espainiarreko herritar asko kokatu ziren bertan. Hazkundearen aurretik ezagutu zuten herritarren artean Santuenea izendapenarekiko erresistentziak aurki daitezke:

> *Gu San Esteban ginen. Gu denak hor bataiatu gara, horko festetan guk hartzen genuen parte, guk, Santueneakoek, orain Santuenea deitzen zaion honetakoek. [B: Bai, festa batzordean Santuenekoak ziren gehienak] Beti, gure garaian behintzat bai. Eta, klaro, gero etorri ziren kanpotarrak eta "¿cómo le llamamos a esto?", porque a ellos San Esteban les quedaba lejos, eta beraiek San Esteban ez zuten identifikatzen. Gero Santuenea baserriaren izena hartu zuten, beraiek egindako etxeak ziren eta horrela, ez? Baina guri min handia eman ziguten hori Udalak ratifikatu zuenean. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*

Migrazio-fenomeno horren segidan eta berarekin lotuta, izen ofizialari bestelako termino batzuk gehitu zitzaizkion, Santueneari erreferentzia egiteko erabiltzen zirenak. Herritarren memorietan oraindik presente dauden elementuak dira eta, apalago bada ere, gaur egun oraindik arrastoak mantentzen dituztenak.

---

[3] TELLABIDE AZKOLAIN, Josu (2004) *Usurbilgo baserriak eta baserritarrak*. Usurbil: Noaua.

A: Gero zer gertatu zen? [Espainiatik etorritako jendearen] azken aldera hasi zen jendea –ez hemengo jendea, "los importantes del pueblo", Kaskok, Kalexar…- "Korea", "Tanger"… Eta nik badakit porque niri esan izandu dit euskaldun batek, jo, ya sentitzen zela pixka bat auzo marginatu batean, ezta? Auzoa polit askoa zen. Auzo marginatu batean. Eta azkenean etxea utzi eta herrira joan zirela.
B: Niri gaur egun ere, [pertsona batek], baina bai, "Segi Tangerrera!".
A: Eta hor dago una xenofobia total, porque…
B: Kalexar eta Kaxkoko batzuk Tanger izena jarri eta oso harro aireztatu izandu dute, eta mespretxu hori egin izandu digute.
A: Bai, eta niri etorri izan zait "Jo, ezagutu det barrioa, ze polita! Kapilla bat, behean irrioa, ze polita!". Baina hori galdu egiten da herri mailan. Galdu egiten da beste konnotazio batzuk sartzen direlako. […]
A: Tánger, Korea eta hauek hasi zirenean, lapurreta bat egoten zen Txokoalden eta "Santuenekoak izango dira!". Hemen lapurretako joerarik ez da egon! […]
B: Etiketa bat daukagu, baina ez da errealitateari ajustatzen. Orduan, etorri zirenekin eman zaion etiketa hori dago gaindimentsionatuta. Berez, errealitatean dena baino askoz zeragoa da. Baina horrekin gelditu gara. Eta zama hori eraman egin behar da. (Emakumeak, 30-59 eta +60, Usurbilen jaioak)

Baina gero, herri mailan eta hori, bai. Hombre, "txurrianoak" esaten genien, así que hortik ya despectivamente, erderaz esaten den bezala, ba bai, ba bai. Bazegoen, eta badago, eta egongo da. Hiruak. Ez da aldatuko. (Emakumea, +60, txikitan etorria Usurbilera, jatorri euskalduneko gurasoak)

Duela 50 urte eta gaur egun, bietan, Santueneak auzo identitate handia dauka. Bizitza auzoan bertan egiteko ohitura adierazi dute bizilagunek, eta Usurbilgo herrigunearekiko urruntasuna adierazi da, bai praktiketan eta baita sinbolikoki edo erabilitako terminoetan ere.

Guk beti esaten dugu: "Usurbilera noa". Kuriosoa da, baina hala esaten dugu. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)

[Elkarrizketatzailea: ¿Soléis ir al centro, a Usurbil?] Poco. Uno o dos días al año. Casi no. (Emakumea, 30-59, jatorri afrikarra)

Kasu batzuetan, "auzotar" identitateak pisu gehiago zuen bestelako identitate desberdintasun batzuek baino, esaterako, euskaldun eta erdaldunen artean zegoena:

Guk jolastu hemen, bai. Elkarrekin jolastu izan dugu. Eta gehiago da: festetara, lehen, ez zitzaizkizun gurasoak goizeko ordubatean Zubietako festetara eta Aginakoetara-eta joaten. Ni gogoratzen naiz beti, festetara joan, elkarrekin joaten ginen igual hemendik, oinez, Zubietaraino, erdaldunak eta gu, eta gero han bakoitza bere kuadrillan ibili. Baina ordua jartzen genuen auzotarrek elkarrekin etortzeko. Eta elkarrekin etortzen ginen. Orduan, gauza horiek bazeuden. Auzotarrak ginenak nolabait ere auzo talde hori, ezta? Baina gauza zehatz batzuetarako: hemen jolasteko eta joan-etorriak eta egiteko. Gero ya bakoitzak bere… (Emakumea, 30-59, Usurbilen jaioa)

Ildo horretatik eta aurrez aipatutako faktoreek eraginda, azpimarratu da Santueneako auzoan harreman estuagoak zeudela oro har pertsonen artean eta baita zehazki euskaldunen eta erdaldunen artean ere. Elkarrizketatu batzuek gogoetatzen zutenez, Santuenearen konnotazioak eraginda herritarrek alde zaharrera gerturatzeko desira izaten zuten, baina auzoan sortzen zen sarea faltan sumatzen zuten ondoren[4]:

A: Santueneako jendea, erdaldunak, [zentrora] etorri bizitzera eta faltan botatzen zuten gero Santuenea. Hori badakit. […] Desiratzen, porque kalera etortzea zen handia.
B: Un cambio de estatus. Más.
A: Baina gero hona etorri eta bilatzen zuten, pues… […]
B: Gero hona etortzen dira, suben un estatus social, baina ez daukate hango solidaritatea. Eta faltan botatzen dute. (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria Usurbilera, jatorri euskalduneko gurasoak)

[4] Ez da leku bakarra fenomeno hau gertatzen dena. Perun ere, esaterako, erregistratu da antzerako gertakari bat Limako zonaldeen artean: estatus sozialean igotzeko egindako mugimenduek sarritan harreman-sare trinko eta esanguratsuak dauden guneetako babesa galarazten diete desplazatzen diren pertsonei. Iturria: MÜLLAUER-SEICHTER, Waltraud (2013). "Barreras invisibles: El cambio residencial como estrategia para aumentar la movilidad social vertical. Caso de estudio, Lima, Perú". *Anales del Museo Nacional de Antropología*, 15: 120-151.

LABURBILDUZ (EGUNEROKO BIZITZA USURBILEN)

- **Lan munduak** eta industriaren gorakadak eman zieten forma usurbildar ugariri garai hartan: laneko espazioetan bat egiten zuten iritsi berriak ziren herritarrek eta inguruan haziak zirenek.
- Antzera, **eskolak** ere elkargunea ziren orduko gaztetxoentzako: jatorri desberdineko herritarrek leku beretara eramaten zituzten beren haurrak. Egoera hori aldatzen hasiko da ikastolaren sorrerarekin. Hala, 80-90. hamarkadako garaian, hezkuntzaren arloan pentsatuta dagoeneko komunitateen arteko banaketak identifikatzen dira.
- **Aisialdian**, familiakideak, eskolakideak eta auzokideak azpimarratzen dira harreman esanguratsu moduan. Haurrak bueltan zeuden garaian (haurtzaroa edo guraso garaia) Usurbilekin lotzen zen aisialdiko garaia, baina helduarora gerturatu ahala, inguruko herrietako bestelako aukeretara gerturatzen dira pertsonak (Lasarte-Oria, Donostia, Errenteria edo Zarautz). Bigarren aldi horretan, euskaldunen eta erdaldunen artean joera desberdinak zeudela baloratzen da.
- **Euskara** ikuspegi desberdinak eta tentsioak sortzen dituen gaia da, bai iraganean eta baita orainaldian ere. Debekatuta zegoen hamarkadetako oroitzapenetan, euskaldunek mendekotasun eta frustrazio sentimenduak oroitzen dituzte; aldiz, erdaldunek euskara ikasteko izan dituzten aukera mugatuak azpimarratzen dituzte. Gaur egunera etorrita, espazio publikoetan erreferentzialitatea baduela dirudi (elkartegintzako dinamikek isla dezaketena neurri batean), baina bi hiztun komunitateak elkartzean tentsioak sortzen dira oraindik une batzuetan eta euskarazko herri eskaintzaren inguruan –zehazki Noaua aldizkaria- erresistentziak daude erdaldunen aldetik. Edozein kasutan, bigarren eta hirugarren belaunaldien euskara gaitasuna puntu positibotzat ikusten da.
- Garai hartan hazitako **auzoen artean, Santueneak** aipamen berezia merezi du. Garai hartan sortua, konnotazio negatiboa hartu zuen migrazioarekin lotuta; gaur egun memorietan oso presente dagoen eta egunerokotasunean noiz edo noiz zantzuak antzematen zaizkion ezaugarria da. Auzo identitate eta bizilagunen arteko lotura handiak zituen gune moduan oroitzen da urte haietako Santuenea, eta bizitza handia zuen leku moduan.

1.4. MIGRAZIOAREN BALORAZIOA ETA INTERAKZIORAKO AUKERAK

Segidan bi puntu landuko dira, XX. mende erdialdeko migrazioaren atala amaitzeko. Lehenengo, garai hartako migrazioaz gaur egunean dauden balorazioak eta inpresioak aztertuko dira, eta bigarren, interakziorako gakoak zein izan ziren argitzeko helburuz, Espainiako beste lekuetatik etorritako pertsonek eta Usurbilen bizi zirenek non egiten zuten topo xehetuko da.

1.4.1. **Migrazioaren balorazioa**

Garai hartako migrazioa baloratzerakoan, hasteko positiboki baloratzen diren aspektuak azpimarratzen dira: iritsi zirenen aldetik, sarritan errepikatu den esaldia da "inoiz ez dutela arazorik izan" eta ez dutela sentitu baztertuak izan direnik[5], eta Usurbilen jaiotakoen aldetik ere ondo hartu zirelako ustea adierazten da. Horrez gain, garai haietan Espainiako beste lekuetatik etorri zirenen aldetik Usurbilekin identifikatzera iritsi direla ere adierazten da, eta beren jatorrizko lekuarekiko duten loturari Usurbilekin dutena gehitzen zaio:

> *Nunca renunciaré adonde soy nacido, pero joder, a mí el País Vasco me lo ha dado todo. Me lo ha dado todo, todo, todo. Las hijas ya son nacidas aquí, los nietos son nacidos aquí. Me lo ha dado todo. Pero una cosa no quita que renuncies a donde eres. Y ahora me gusta ir ahí también, y estoy a gusto allí. (Gizona, +60, espainiar jatorria)*

Edozein kasutan, sarritan azpimarratzen da bi komunitate zeudelako ideia: euskaldunak eta erdaldunak. Eguneroko bizitzako hainbat espazio konpartitzen zituzten arren (eskola, aisialdia eta lan-eremua) komunitateen arteko desberdintasunak antzematen zirela baloratzen da eta gaur egun ere presente daudela. Hala ere, nabarmentzen da ezaugarri hau ez dela Usurbilen soilik gertatutako fenomeno bat. Hizkuntzaren arabera bereizten diren bi kolektibo direla baloratzen den arren, ñabardurak gehitzen zaizkio bereizketa linguistikoari ("batzuk ikasi zuten euskaraz") eta beste ezaugarri batzuk ere aipatzen dira, ohiturak esaterako.

> *A: Dos comunidades daude, eh. Orain ere bai, bi komunitate. Clarísimo. Eta etxe batzuetan euskaraz ikasten zuten, baina beste batzuetan ez zuten ikasten. En cambio, batzuk baziren orduan ere, guraso batzuk, "hemos venido aquí y tenéis que aprender" haurreri. Baina bi komunitate daude, eh. Klaro eta garbi ikusten da. Jende gazteetan akaso… Baina gure edadekoa, dos comunidades clarísimas, clarísimas. [...] Usurbilen bi komunitate daudela, bai. Oraindikan bai. Gure edadekoa, de cincuenta p'arriba, sesenta, setenta, bai emakumeetan eta bai gizonetan dos comunidades: comunidad euskalduna eta comunidad erdalduna.*
> *[Elkarrizketatzailea: Hizkuntzak banatzen ditu?]*
> *B: Hizkuntzarekin eta jokabidea baita ere, nik uste. […] Festetan…*
> *A: Gu baino askoz espabilatuagoak ziren dantzan-eta, gu baino askoz ausartagoak ziren.*
> *B: Usurbilgo programan, festetan, zahar etxean, jartzen duzue: rancheras de no sé dónde. Eta han ikusiko dituzu denak. Denak. Eta zuk jartzen duzu, por ejemplo, Kukai taldea edo, eta joango ginateke bakarrik euskaldunak. Beraiek ez ziren etorriko.*
> *A: Bai, baina gu joan egiten gara…*
> *B: Bai, ni denetara joaten naiz. Baina oraindik, gure adineko jendeak klaro eta garbi bi komunitate. (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)*

> *Ahora menos, pero antes ha habido casos que a mí no me han gustado. […] Pues sobre el 2000 ó 2000 y algo. Entonces, yo pienso que en aquella época, yo he visto que… Yo estaba trabajando, pero yo una vez que he salido a la noche a andar he visto que iban cuadrillas de los que no eran vascos y cuadrillas que eran vascos. Y yo decía: "jode, pero aquí debíamos ser todos iguales, ¿no? Y la realidad no era así. Yo digo: "Pues esa gente cuando va a su pueblo qué ira hablando. ¿Qué ira hablando esa gente cuando va a su pueblo, donde ha nacido, qué ira hablando?". (Gizona, +60, espainiar jatorria)*

[5] Kontuan hartu behar da Usurbilen gelditzea erabaki dutenen eta ikerketan parte hartzeko prest zeudenen ikuspegia soilik daukagula eskuragarri ikerketa honetan. Horrez gain, memoria ariketa bat eginez iraganeko egoera bat irudikatzen hastean, eraiitzen den irudia orainaldia justifikatzeko eraikia izaten da, eta gehiago esaten digu orainaz iraganaz baino. Iturria: BAER, Alejandro (2010): "La memoria social: breve guía para perplejos", in: J.A. Zamora und A. Sucasas (Eds.), *Memoria - Política – Justicia. En diálogo con Reyes Mate*, Madrid: Editorial Trotta, 131-148.

Bi komunitate zeudelako ideia horri gehitzen zaio 60 eta 70. hamarkadetan etorritako lehenengo migrazioaren eta bertan bizi zirenen artean bikoteak egiteko izan ziren muga edo zailtasunen oroitzapena:

> *Eta gero gertatzen zen gauza bat, ez? Por lo que sea, mutil erdaldun bat ezagutzen baldin bazenuen, etxean esatea erdaldun batekin ateratzen zinela…! Beraiei igual gauza berdina gertatuko zitzaien, baina guri ere… Ematen zuen halako apuroa… (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*

Desberdintasun edo taldekatze sozialak daudenetan, horiek botere-harremanekin lotura estua izaten dute. Kasu honetan ere halaxe nabaritzen zen, euskaldun eta erdaldun komunitatearen artean botere desoreka bat egon bazegoela. Testuinguru politikoak eta diktadurak eragin nabarmena zuen alde horretatik, euskarak eta euskal kulturak bizi zuten mendekotasun egoerak eta erreferentzia marko moduan espainiar identitate eta lurraldetasunetik irakurtzen zen lekua izateak (Espainiaren barruko lekualdatze bezala ulertzen zen, eta horrek aniztasunaren aurreikuspenean eragin zezakeen). Era berean, iristen ari zirenentzat garai zailak zirela aipatzen da, eta ekonomikoki bereziki oso egoera zaurgarriak bizi zituela jendeak:

> *Franquismo puro y duro. Eta beraiek beren herritik etorri ziren a la desesperada. Zaila, zaila, zaila. Denentzat zaila. […] Momentua oso gogorra zen. Franquismo puro y duro. Eta horrek egin du min bat… Eta oraindikan. (Emakumea, +60, txikitan etorria Usurbilera, jatorri euskalduneko gurasoak)*

Euskal komunitateko kideak mendeko posizioan sentitu zirela adierazi da hainbatetan, eta harreman horietatik gatazka uneak bizi izan zirela ere gogoratu da. Iristen ziren pertsonek lortzen zuten arrakasta ekonomikoaren inguruan sortutako imajinarioari egin zaio erreferentzia, edota hizkuntzaren aldagaiari.

> *A.Nire gizonaren amak esaten zuen: "Ikusten, gu gatxaren eskasenak. Etortzen ditun ez dakit nondik eta…", egia da beti beraiek presentzia-eta nahiko ondo-eta, zera ona. "Ikusten al dun? Hor ibiltzen ditun, nola etorri eta segituan etxea erosten dinate. Eta hemengoak berriz, askok…".*
> *B: Baina horiek lana egiten zuten gogor, lana eta lana…*
> *A: Hemengoek ere bai. (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)*
>
> *Zuk zerbait esandakoan, laster erantzuten zizuten: "Es que en mi pueblo…", esaten zuten. Gero jendeak esaten zien… Ni diskusio batean egonda nago, adibidez… Baina beraiek ere ez pentsa, hortan nahiko prepotenteak ziren. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*
>
> *A: Izandu ziren liskar gogorrak. […] Denean bezala, batzuk zeragoak ziren. Ni gogoratzen naiz batzuk... […] Beraiek [Espainiatik etorriak] ez ziren atxikatzen, eh. […] Porque ni gogoratzen naiz [euskaldunek] nola esaten zuten: "Jo, guk ikasi behar! Beraiek ikastea dinate!". […] Beti liskar gehiago zuten mutilek neskek baino. […] Kontaktu gehiago zegoelako.*
> *B: Gu ez ginen tabernara joaten. (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)*

1.4.2. **Desberdinen arteko harremanak: interakziorako guneak eta uneak**

Egon ziren harremanak, sortu ziren lagun-taldeak eta gaur egun mantentzen dira orduan eraikitzen hasitako sareak Espainiako beste lekuetatik iritsitako pertsonen eta Usurbilen bizi ziren harrera gizarteko kideen artean. Aurreko ataletan arakatu dugu egunerokotasuneko bizitzako eremu nagusietan, eta atera dira dagoeneko gako batzuk. Atal honetan, garai hartako fenomenoaren errepasoa amaitzeko, desberdinen arteko interakzioa ahalbidetu zuten espazio, gune eta uneak aipatuko ditugu, jatorri desberdineko pertsonak elkarren artean harremantzeko balio izan zutenak.

Lehenengo eta behin, azpimarratu beharreko ideia nagusia da bizitza publikoko espazio nagusietan bat egiten zutela Espainiatik iritsi ziren herritarrek eta Usurbilen bizi ziren harrera gizarteko kideek. Eremu berdinak partekatzen zituzten: guztiek egiten zuten inguruko lantokietan (Michelin, Ingemar, Luzuriaga…), eskola beretara joaten ziren eta auzoko gune berak konpartitzen zituzten aisialdian, herrian gelditzen zirenetan behintzat. Fenomeno hori azpimarratzekoa da, aurrerago ikusiko dugun moduan, migrazio berriaren kasuan lausotzen ari den ezaugarria delako eta aurreko esperientziarekiko desberdintasuna markatzen duelako.

Desberdinen arteko interakzioa sustatzen duen lehenengo elementu aipagarri moduan **haurrak** dauzkagu. Helduen ikuspuntutik begiratuta, haurrak dauden garaian desplazamenduak gehiago mugatzen dira eta gertuko zonetan gelditzeko joera indartu da, beraz auzokideekin eta herrikideekin lotura gehiago eginez. Haurraren munduaren bueltan elkartzen diren beste subjektuekin ere harreman gehiago sortzen da: beste haurrak edota horien gurasoak nagusiki. Hurrengo aipuetan ondorioztatu daitekeen bezala, generoaren aldagaiak eragina zuen harremanak eraikitzeko momentuan, espazio publiko ezberdina baita konpartitzen zutena:

> *Ni aspaldi ya umeekin ez naizela etortzen parkera. Porque parkean askotan egiten duzu tratu gehiena. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*

> *Mi mujer conoció a la gente por ir las niñas al colegio, por todo. Se identificó más rápido. A mí me costó más identificarme con el pueblo de Usurbil. (Gizona, +60, espainiar jatorria)*

Bestetik, haurtzaroa bera une klabea da desberdinen harreman sareak sortzeko. Ezaugarri hori nagusiki eskola garaiarekin lotuta dago, hain justu, eskola gune berri batean sozializatzeko espazio klabea delako. Hala, esperientzietan garbi ikusten da eskolako lagunek pisu handia izan dutela elkarrizketatuen sozializazioan, eta sarritan euskaldun eta erdaldun komunitateko pertsonen arteko harremanak sortzeko bide eman duela.

> *Eskola kontua da. Ni, adibidez, institutura joaten hasi nintzenean trenean, [Espainiatik etorritako] horietako baten alaba gurekin joaten zen trenean, baina bera bakarrik erdalduna, eh. Garai hartan nazionaletara joaten ziren eta hor bukatzen zuten askok beren graduado escolar, certificado de escolaridad, eta hor bukatzen zuten. Eta, adibidez, hau eskolara nirekin batera joaten zelako. Eta gero tratuarekin jarraitu nuen. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*

Baina ez da eskolara soilik mugatzen den elementua. Aisialdiarekin eta aurrez aipatutako beste elementu batekin lotuta, auzoan aurki zitezkeen pertsonak, desberdinen arteko harremanak sortzeko aukera eskaintzen zela argitzen du hurrengo pasadizoak:

> *Etorri ziren neskak de la Sección Femenina, problemekin. Problemekin etorri ziren eta ez dakizu guk, neskak, zenbat laguntzen genien neska horiei. Pues ziren problemáticos […], eta denak ziren kanpotarrak. Eta guk, gogoratzen naiz, ez geneukan sartzerik, eta estazioaren ondoan [zegoen] ate handi bat, azpitikan pasatzen genizkien geneuzkan edo gaileta batzuk edo… Esan nahi dut que haieri ere oso ondo hartu zitzaiela. Eta guk ere ez genuen ezer, eh. Ez pentsa beraiek baino askoz gehiago. Pues eso, juxtu-juxtu bizi eta aurrera. Baina nola maite genituen! […] Ez ziren ateratzen handik. […] Txokoalden ere igual, lau edo bost neska, eta ez zen ezer kontaturik inorekin. Orduan, guk ere nahi genuen hitz egin. Eta orduan, neska horiek ikusten genituen pozik egoten zirela gurekin, eta gu ere bai beraiekin. Eta orduan, ba hartu-emana ona. […] Txikiak ginen, eh. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*

Bigarren espazio klabe bat **lan mundua** izan da: lan-espazioak konpartitu diren kasuetan, harremanak sortu dira bai lankideen artean eta baita lanaren bueltan elkartutako beste figura batzuen artean ere (nagusi-langile, dendari-bezero, zaindari-zaintzaile rolak esaterako).

> *[Nola ezagutu ziren gertuko lagunak] Con [dos de la cuadrilla] estuve trabajando con ellas. Y con las otras, pues conocidas del pueblo. Nos conocemos del pueblo, y empezamos a quedar, a quedar, a quedar y… (Emakumea, +60, espainiar jatorria)*

> *[Zaintzen zituen haurren familia] Esos son de aquí, sí, sí, sí. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)*

Harremanak sortzeko bide eman zuen beste espazio bat **etxekoa** izan zen: sarritan errepikatu da garai hartan Usurbilen bizi ziren pertsonen etxeetan hartu ziren pertsonen figura, fabriketan lan egin eta bertan "apopilo" edo "interina" moduan hartzen zituztenena.

> *Baserrietan jartzen ziren apopilo bezala. Bilatzen zuten lana fabrika batean eta baserrian normalean izaten zuten, baserrian laguntzeko aldea, izaten zuten jana eta lotarako tokia, eta garbitasuna izaten zituzten. Eta horrela ere jendea dezente. Baserrietan, ez dut esango denetan, baina baserri askotan beti igual egoten ziren bat edo bi edo hiru. (Gizona, +60, Usurbilen jaioa)*

> *Nire etxean egoten ziren interinak erdaldunak. Eta gure etxean asko, amak eta aitak asko laguntzen zien. Baina sufritzen zuten, bai. Sufritzen zuten. […] Nire etxean beti eduki dut, eta ziren andreak erdaldunak oso majak, oso-oso majak, jatorrak. Eta beraiek, ikusten zen beren bizimodua oso zaila zela. (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)*

Aisialdiko eremuari erreparatuta, aldagai zehatz batek hartzen du pisua harremanak eta desberdinen arteko interakzioa sortzeko: **kirolak, eta konkretuki eskubaloiak**. Garai hartan Usurbilen indar handia izan zuen kirola dela baloratzen da, eta (mutil) gazte euskaldun eta erdaldunak batzeko gune bat izan zela.

> *Mutilek, beraien artean, balonmanon-eta jolasten zuten beste era batera. Garai hartako mutilek euskaraz ikasi egin dute. Diferentea zen. [Elkarrizketatzailea: Balonmanotik harremana sortu zen?] Bai, bai. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*

> *[Eskubaloian] bai erdaldunak eta bai euskaldunak. Porque nire [ezagun bat] zen aurrenekoak, eta ibiltzen ziren denak nahastuta. Hori bai, balonmano… Hori izango zen el año 65 edo hola. Balonmano al año 65 hasiko zen? Baina bai mutilak eta bai neskak, hor, denak. Ahora, neska erdaldunak ez naiz gogoratzen. Baina mutilak denak nahastuta ibiltzen ziren. […] Hor bai mutilak erdaldunak eta… Neskak ez, neskak denak euskaldunak ziren, porque nire lagunak ziren. Baina mutiletan erdaldunak baziren. Nahasten ziren. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*

Garai hartan iritsitakoen bizipenetan, gaur egunera etorrita, azken urteetan **elkartegintzaren eremua** harremanak sortzeko eta lagun-talde berriak egiteko erreferentzia garrantzitsua izan dela ikusten dugu. Esaterako, jubilatuen elkartea eta egiten dituzten ekintzak dira adibide bat.

> *Yo, desde que he estado en la junta de los jubilados he conocido a mucha gente y he conocido muchas cosas buenas de Usurbil que no conocía. Y me siento identificado con Usurbil 100 %. ¿Por qué? A mí me han ayudado a identificarme mejor con el pueblo todas estas cosas. Me ha ayudado… ¿Por qué? Porque por lo menos he conocido Usurbil. Antes no lo conocía. Una persona que está trabajando fuera no puede conocer el pueblo. […] He conocido más al pueblo. He conocido a más gente que no conocía. Y a mí me da satisfacción. Y aprendes a conocer el pueblo, aprendes a conocer gente. Y eso, para mí, es satisfacción, conocer gente. [Elkarrizketatzailea: ¿Qué tipo de gente has conocido mediante la junta de jubilados?] Pues hombre, como tú comprenderás, en una asociación de jubliados conoces gente de tu entorno, más o menos. Pero la gente de tu entorno, pues gente que ha sido nacida aquí y gente que no ha sido nacida aquí. (Gizona, +60, espainiar jatorria)*

Migrazio haren ondoren, dagoeneko helduaroan dauden seme-alaben bigarren belaunaldi bat egon da, eta horien haurrek gaur egun hirugarren belaunaldia ere osatzen dute kasu askotan. Denbora aurrera doan bezala, seme-alaben artean ezaugarriak lausotzen doazela baloratzen da, bai sortu dituzten harreman-sareei dagokienez eta baita norberak bere buruarekiko egiten dituen identifikazioez ere.

> *Gu igual txikitan ez ginen konturatzen horretaz [jatorriaren araberako desberdintasunetaz]. Gu ere joaten ginen ikastolara, gero etxera, gero jolastera, bokata hartzen genuen gero kalera joateko jolastera, eta ez dakit. Nik behintzat… Gero ya igual handia egiten zarenean, igual… Aber, igual konturatzen zara… Baina txikitan ez. (Gizona, 30-59, Usurbilen jaioa eta espainiar jatorriko gurasoak)*

> *A: Oraingo jende gaztea nik uste dut nahasten dela, bai, erdaldunak eta euskaldunak, gehiago. Baina gure edadean, ez lehen eta ez gero. Eta ez orain.*
> *B: Gure edadean ez, baina gure umeen edadean bai. (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)*

LABURBILDUZ (MIGRAZIOAREN BALORAZIOA ETA INTERAKZIORAKO AUKERAK)

- XX. mende erdialdeko migrazioaren kasuan, **bi komunitate** bereiztu egon direla eta gaur egun ere mantentzen direla baloratzen da hein batean. Euskaldunen eta erdaldunen artean, migrazioa gertatu zen garai historikoan bizi zen errealitateak eragindako botere-harremanak azpimarratzen dira, ardatz desberdinen arabera (ekonomikoa, linguistikoa…). Tentsio uneak bizi izan zirela gogoratzen da, baina gaur egun dagoeneko presente ez dagoen giroa da.
- Interakziorako balio izan zuten edo aipagarriak izan ziren elementuen artean, aipagarriak dira batzuk:
    - **Haurtzaroa** (bai haurrei beraiei dagokienez eta kasu horretan eskolari lotuta, eta baita gurasoen arteko harremanetarako ere)
    - **Aisialdia: auzoko gunea eta kirol-jarduerak** (eskubaloia).
    - **Lan mundua.**
    - **Etxeko espazioa.**
    - **Elkartegintza.**
- **Hurrengo belaunaldietan,** komunitateen arteko eta jatorriak sortutako desberdintasunak lausotzen doazela baloratzen da.

2. … ETA GAUR EGUN ERE ANITZA DA

Azken urteetan bigarren migrazio-olatu bat ari da iristen, 2000. urtetik hona nabaritzen dena bereziki. Kasu honetan, Espainiako beste lekuetatik datozen pertsonak tarteko dauden arren, protagonistak munduko beste lekuetatik datozen pertsonak dira: Latinoamerikatik, Afrikatik, Europako beste lekuetatik… Hala, migrazioaren fenomenoa bera ere aniztu egin da azken urteetan.

Ezaugarri hori beste datu batekin elkartzen da: beste lekuetatik iristen diren herritarren kopuruak ez dira aurreko aldian bezain handiak. 2019ra arte jasota dauden datuetan ikusten da, aldaketak arinak baldin badira ere, udalerrian eta Gipuzkoan jaiotako herritarrak antzeko mantentzen direla proportzioan, baina Nafarroa Garaia eta Espainian jaiotako herritarrak pisua galtzen ari direla eta beste kontinenteak gorantz.



Herritar hauek etorri diren testuingurua desberdina da: jatorrizko lurraldeen eta beraien egoeraren aldetik aniztasun handiagoa dago, eta harrera gizarteari dagokionez ere Euskal Herrian garai ekonomiko gorabeheratsuak izan dira azken hamarkadetan.

Segidan datozen orrietan, duela mende erdia etorritako pertsonekin egindako ibilbide bera egingo dugu orain iristen ari diren pertsonen kasuan. Bereziki, aurreko alditik hona aldatu diren gauzei erreparatuko diegu atal bakoitzeko, aurreko migrazioarekiko desberdintasun bat markatzen duten aldagaiei hain justu.

2.1. MIGRAZIO PROZESUAK

Migrazio-prozesuak martxan jartzeko oinarrizko faktore nagusiak berdintsu mantendu dira: egoera ekonomiko hobe baten itxaropena eta familia-bateratzeak (bai gure elkarrizketatuak aurrez etorritako norbaitengana etorri direlako eta baita segidan beste norbait ekarri dutelako ere beraien atzetik).

> *Para trabajar vine aquí. […] Porque estoy todavía joven, vine aquí para buscar trabajo. (Emakumea, 30-59, jatorri afrikarra)*

> *Mi madre fue la primera en animarse a venir aquí. Fue en el 2001. Yo era menor de edad, obviamente. Luego ya estuvo aquí. Al año de estar aquí fue cuando decidió traerme, y desde que estoy, estoy aquí, aquí en Usurbil. (Emakumea, 30-59, jatorri latinoamerikarra)*

Horrekin batera, baina, argudio berri bat ere aurkitzen dugu, aurreko kasuan ez zena agertzen: seme-alabentzako aukera bila etortzea. Baloratzen dute beren egoera propioak okerrera egin dezakeela edo proiektu pertsonaletarako testuinguru okerragoa dutela hemen; izan ere, aurreko bizilekuetan lan kualifikatu edo teknikoak zituzten, eta hona iristean lan prekarioagoetara pasa dira. Baina beren haurrei begira eskaintzen dituen aukerengatik bizileku berriak jatorriak baino aukera hobeak eskaintzen dituela uste dute.

> *Fue difícil, porque sabía que aquí no iba a trabajar de auxiliar de audiovisual, sabía que no iba a trabajar de jefe de almacén. Estudié trabajo social también; sabía que aquí no iba a trabajar en mi carrera. Entonces, fue muy difícil. […] Pero luego yo, cuando dí el sí, quíse buscar más motivos que me fortalecieran al salir yo de mi país. Y empecé a pensar en la educación de mis hijos. Dije yo: "Mis hijos estudian un oficio allá, aunque no se les pueda dar la universidad, estudian un oficio, y ese oficio les va a ayudar más que aquí en [nuestro país]". Y me puse a pensar: "Si mis hijos estudian electricidad aquí, sus conocimientos no van a ser tan avanzados y no van a ganar un salario mejor que estudien electricidad en España. Entonces, decía yo: "Pues sí, pues igual va a ser mejor". (Gizona, 30-59, jatorri latinoamerikarra)*

> *La razón por la que vine fue porque tengo a mi mujer y a mi hijo. Mi suegra vivía aquí, y quería ver a su hija, que es mi mujer. Y nos vinimos para acá, y la verdad es que fue difícil decidirse, porque yo también tenía trabajo. […] Y me iba muy bien, la verdad. Y conocía todos lados. Y, pues decidimos venirnos para acá. ¿Por qué? Pues para darle un futuro a mi hijo, eso es. Quiero que sea mejor persona. (Gizona, 30 urtez azpitik, jatorri latinoamerikarra)*

Bestetik, ikuspuntu berri bat edo argudio berri bat identifikatzen da jatorri espainiarra duten eta orain iristen ari diren pertsonen kasuan. Hain justu, globalizazioaren garaian gertatzen ari diren migrazio-fenomenoak eskala handiagokoak dira duela mende erdikoak baino. Horregatik, beste herrialde batzuetan bizitzetik etorritako pertsonen kasuan, Usurbil bizileku bezala hartzea "etxera" gerturatze moduan irakurtzen da:

> *Pero yo, cuando me vine aquí que dije que al final es como estar en casa. Te da igual que sea [su provincia], que sea Madrid, que sea País Vasco. (Emakumea, 30-59, espainiar jatorria, orain iritsia)*

Aurreko olatuan bezala, Usurbil ez da izan lehenengo iritsiera lekua batzuen kasuan. Donostiatik gertu egotea erreferentzia garrantzitsua izan da, hiriburutik gertu baina prezio merkeagoak dituen leku bat bilatzeko asmotan. Horrekin lotuta, inguruko hirigunean bizi diren pertsonek, prezioen eta bizitza-mailaren presioarengatik Usurbilera gerturatzeko joera dutela irizten da. Mugimendu hori egiten duten kolektiboen artean, inguruko herrietan jaio diren pertsonak gero eta pisu gehiago hartzen ari direla baloratzen da; hau da, Euskal Herri barneko migrazioak ari direla indartzen. Are gehiago, inguruko herri handiagoetako bizilagunak izanik eta aurreko bizilekua gertu edukirik, Usurbil lo-hiria bihurtzen joateko kezka mahaigaineratu da:

Que aquí uno esté más integrado o menos integrado porque ha venido de fuera y porque él no es sociable con el pueblo, o porque el pueblo no es sociable con él, eso también va mucho en la persona. Una persona que no es sociable no quiere decir que no esté integrado con el pueblo. (Gizona, 30-59, jatorri latinoamerikarra)

Bestetik, migrazioaren gaian harremanak sortzea erronka moduan identifikatzen den arren, ez dela migrazioari soilik eragiten dion zerbait ikusten da. Aitzitik, gaur egungo gizartean indibidualismorako joera handaigao dagoela baloratzen da, Europan bereziki, eta bizimodu aldaketa horrek gizarteko esparru guztiei eragiten die:

Creo que la sociedad europea, sobre todo, es una sociedad que empuja mucho hacia el individualismo. Igual alguien que viene de una comunidad indígena de Perú, que tiene el sentimiento de comunidad súper arraigado puede aportarnos cosas que nos sirvan mucho más y que nos alejen de el "yo soy yo". (Emakumea, 30 urtez azpitik, jatorri latinoamerikarra)

Hori asko galdu da. Lehen izaten zen, igual ogia falta zenuen eta joan zera… Nik uste dut orain, ez eskatzeagatik ondokoari… Eta ondo eramaten gara denok, eh. Asetzen garela daukagunarekin ez eskatzearengatik. Nik hori pixka bat zeran botatzen dut, lehengo harremana, lehengo zera hori, hori galdu egin da. Eta oso ondo ematen gara, eh. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)

Harreman falta euskaldunen eta beste komunitateen artean ikusten den moduan, baina, iritsi berrien artean ere nabaritzen da. Komunitate desberdinen artean harremanak mugatuak izaten direla ikusten da, eta era berean, batzuetan komunitate horiek beraiek identifikatu gabe daudela ere bai, edo jatorri bereko pertsonek ez dutela sarerik osatuta. Are gehiago, sortu diren elkarrekintzak batzuetan gatazkatsuak izan direla ikusi da, eta horrek berak zaildu egiten duela harreman proaktiboak sortzea:

Nik bizikidetza aldetik ikusten dut, bai saharauiarrekin, errumaniarrekin eta ijitoekin hartu-eman minimo bat badago. Kaso egitea eta pasaeran bi galdera-edo egitea edo bost minutu egotea. Baina hortik aurrerakorik ez dago. Eta beraiek ere egiten dira, beraien artean ere ez dute… Saharauiarrak esertzen dira leku batean, ijitoak, gainera etortzen zaizkie senitartekoak eta 20-30eko taldetxo batzuk egiten dituzte… Eta hor falta da konexio bat. Eta gero, beraien artean ere… Ari da auzoan ere, ba pare bat liskar egon dira eta liskar horietan jatorri ezberdinekoak egon dira tartean, eta orduan, ba horrek ere zaildu egiten du. O sea, bakoitza oraindik ere extremoetara eramaten du. Orduan, hor badago arazo bat. (Emakumea, 30-59, Usurbilen jaioa)

Soy inmigrante, pero tampoco tengo mucha relación con más inmigrantes como yo. Tampoco hay una red. ¿Me gustaría participar más e implicarme más? Sí. (Emakumea, 30 urtez azpitik, jatorri latinoamerikarra)

A estas alturas, tengo [red de amistades]. de mi país, muchos. […] Más ando con gente de mi país. O familia o amigos, pero de mi país mismo. Alguna vez que he quedado, pues sí que con alguna madre a tomar un café, o eso es. (Emakumea, 30-59, jatorri latinoamerikarra)

Harremanak sortzeko gakoetako bat errepresentazioa edo kalean eta espazio publikoan leku bat izatearen sentsazioa edukitzea da, komunitate mailan. Alde horretatik, baina, herrian jatorri desberdinek errepresentaziorik ez dutela sentitzen da:

Se nos ve, se nos mira, una vez al año. El resto del año nos ven, pero tampoco nos miran. No te paras a pensar cuánta gente ha emigrado aquí o… No sé. Tampoco hay una mirada general todo el año. Yo te diría que hay miradas puntuales, que es la de Mundualdia y de algún documental, pero que siempre van los mismos. Yo no creo que estemos representados. (Emakumea, 30 urtez azpitik, jatorri latinoamerikarra)

Edozein kasutan, gizarteko sektore guztietan gauzak ez dira berdin. Hala, aurreko migrazioaren kasuan ere ikusi dugun moduan, haurtzaroan egoera desberdina dela baloratzen da. Hau da, haurren artean harremanak errazago gertatzen dira, eta helduaroan sortzen dira zailtasun handiagoak harremanak sortzeko eta interakzioa areagotzeko:

A: Hay algunas familias de origen marroquí creo que son, y los niños son niños, y van al colegio juntos, juegan entre ellos. Sí que después te percatas, te das cuenta de que, por ejemplo, los adultos están en el parque marroquís con marroquís…
B: Las madres, están las marroquís todas juntitas en el grupo. Que se acercan y hablan contigo, nosotros nos acercamos y hablamos con ellas. Pero se hacen grupos. El idioma también hace.
A: Sí. Hay una familia de gitanos que está el patriarca allí y se vienen los gitanos, vienen de Lasarte… […] En verano estábamos todos fuera: pues la cuadrilla estamos en el bar tomando cervezas, los marroquís y las madres están ahí hablando de sus cosas…
B: Los gitanos en una esquina…
A: Si es que es normal.
B: Pero los niños están todos juntos. Y uno de los niños se cae y se hace daño, y da igual que tú como madre no estés, que si está la madre marroquí va a ir la madre marroquí; o si está la madre gitana va a ir la madre gitana a ver qué pasa. Que no es que… Que todos nos llevamos muy bien pero que cada uno tiene su cuadrilla y ya está. Y los niños están todos ahí, dándose balonazos [risas]. (Emakumea eta gizona, 30-59, espainiar jatorria, orain iritsiak)

Zailtasunak eta mugak badaudela identifikatu arren, hala eta guztiz ere, egon badaude espazio eta une batzuk jatorri desberdineko pertsonek bat egiten dutenak. Gaur egungo markoan gertatu diren aldaketek eta migrazio honen ezaugarriek eraginda (lan-merkatuan banaketa handiagoa, aisialdiko dispertsio handiagoa eta aniztasun areagotua, esaterako), badaude desberdintasunak aurreko migrazioarekiko, baina badaude era berean esanguratsu mantentzen jarraitzen duten faktore batzuek ere. Hasteko, **lan eremuak** esanguratsua izaten jarraitzen du desberdinen arteko harremanak sortzeko:

Gu oso ondo egokitu gara. Lanak asko lagundu digu [herriko taberna eta jatetxeetan egiten dute lan]. (Emakumea, 30 urtez azpitik, Euskal Herriko beste leku batetik orain iritsia)

Conocí a gente. Pues de que iban a tomar café o a comer o a lo que sea [al lugar donde trabajaba]. La gente me preguntaba: "¿Tú eres la que vives en Usurbil?". […] (Emakumea, 30-59, jatorri latinoamerikarra)

Lanaren munduan, jatorriaren araberako lan banaketak markatuagoak dira gaur egun iraganean baino. Hala eta guztiz ere, kasu batzuetan harremanak sortzen jarraitzen da. Aurreko aipuan ikusten den moduan, zerbitzari eta hirugarren sektoreko lanetan sortzen dira espazioak. Bestetik, gehienbat migratzaileen bidez okupatuta dagoen zaintza eremuak ere etxe barruko espazioak harremanak sortzeko eremu bilakatzen ditu, langile eta kontratatzaile logikatik hasten baldin bada ere:

Las chicas que han estado en mi casa con mi madre, cuando tenía a mi madre, eran todas de fuera. De Ecuador, de Paraguay… Y muy bien. Yo me sigo hablando con ellas. Fenomenal. […] Y ellas conmigo igual, también. Me lo han dicho. Que estaban contentísimas. [Elkarrizketatzailea: ¿Ellas también viven en Usurbil?] Sí. […] La mayoría de las chicas que están cuidando a mayores, pero mayores-mayores, que igual están en silla de ruedas la mayoría, todo son chicas de fuera. Todas. (Emakumea, +60, espainiar jatorria, txikitan gurasoekin etorria)

Lan munduari begira, proposamen zehatza egin da administraziotik migrazioaren gaietarako bidelaguntza eskainiko duten figura batzuk kontuan izatearena, jatorri desberdinetako komunitateen erreferentzia izan daitezkeen pertsonez osatuak, beren ezagutza interesgarria izan daitekeen kasuetan laguntzeko:

Que existiera un proyecto del Ayuntamiento que nos involucre laboralmente también a los extranjeros, que nos haga una propuesta. […] Me nació la idea que nos dieran la oportunidad a inmigrantes, con un grado también de estudios, ¿me entendés? Y conocimientos. Que lleven casos de inmigrantes. Porque nosotros conocemos las situaciones, sabemos cómo se gestiona la documentación, qué gastos puede conllevar, cuánto tiempo puede tardar. (Gizona, 30-59, jatorri latinoamerikarra)

Desberdinen arteko interakzioa areagotzeko baliogarria agertu den bigarren elementua ere aurreko belaunaldian presente izan dugu: **haurrak**. Haurtzaroa interakzio gehiago edukitzeko aukera dagoen garai bat da, jatorri desberdintasunak "naturalizatuago" hartu daitezkeen garai bat ere bai hein batean:

Adibidez, nire semeak, etxera iristen direnean eta adibidez hitz egiten dute beren lagunez. Joe, adibidez, "Ez dakit zeinek esaten du Txilen…". O sea, berarentzako da ya normala. O sea, da lagun bat, bere gelako lagun bat, eta ez daukate inongo… Ez dute sumatzen desberdintasunak daudela. Berarentzako lagun bat da eta punto pelota. Berari berdin zaio txiletarra baldin bada edo… (Gizona, 30-59, Usurbilen jaioa eta espainiar jatorriko gurasoak)

Haurrek beraiek harremanak sor ditzaketen bezala, balio dezake baita inguruko pertsona helduagoentzat ere, nahiz eta agian ez diren oso harreman sakonetan bihurtuko. Hala adierazten dute gurasoen testigantzek:

Nik adibidez, nire semearen lagunen aitekin, ikastolan, nola zauden itxaroten beraiek ateratzeko, ba azkenean beraiekin hitz egiten duzu: "¿Qué tal tu hijo, tal? ¿Sois chilenos? ¿Y qué tal?". Nik ya behin beraiekin hitz egin dut. Baina behin. Ya hemos cortado el hielo, esaten dena. Hurrengoan ikusten badut kalean agurtuko dut eta berak ni. Baina ya está. Gero kalean ez dut ikusten esateko: "Etorri gurekin…". Ikusten badut, nik ez dut inongo arazorik gu ezagutzeko eta gurekin ibiltzeko. Baina es que zaila da, zaila da. Ez gara leku berdinetan ibiltzen eta ez gara ikusten. (Gizona, 30-59, Usurbilen jaioa eta espainiar jatorriko gurasoak)

A: [Inguruko herrietatik datozenak] Integratzeko kosta egiten zaie. Pixka bat integratzen direnean, ume txikiak dituzten bitartean… Hemen eskola zera dagoen arte… Baina gero, klaro, behin 10-12 urtera arte dago hemen, uste dut.
B: Oso poliki txertatzen dira, eh. Txertatzen dira, baina poliki.
A: Horiek, batik bat, umeak eskola edadean dauzkatenak eta horiek, nik ez dut uste horiek arazorik eduki dutenik Usurbilgo jendearekin. Nahiz euskara mailan, bai kirol mailan… Hor ez dut uste. (Gizonak, +60, Usurbilen jaioak)

Harremanak parkean egiten ditugu, haurrarekin (Emakumea, 30 urtez azpitik, Euskal Herriko beste leku batetik orain iritsia)

Bestetik, haur eta gaztetxoen kasuan, **eskolan** denbora igaro behar izateak beren adin bueltako jendearekin harremanak sortzeko bide ematen die:

Una de mis amigas la conocí en bachillerato, recomendado de una chica que era amiga mía en ese momento pero ahora ya no lo es. Nada, sin más, nos empezamos a hablar y nos llevamos súper bien y ya está. (Emakumea, 30 urtez azpitik, jatorri afrikarra)

Eta eskola bera jatorri aniztasuna eta elkarbizitzaren gaia lantzeko espazio egoki bat izan daitekeela ere ikusten da.

> *Supongo que se harán jornadas culturales en los colegios y todo eso. (Emakumea, 30-59, espainiar jatorria, orain iritsia Usurbilera)*

Eskolaren eremuaz gain aisialdiko espazioek ere harremanak sortzeko aukera eskaintzen dutela ikusten da. Hala, leku berean jolasean ari diren haurren gurasoek, haien bueltan, harremanak sortzen dituzte batzuetan:

> *Cuando mi hija era más pequeña era mejor en el sentido de que más frecuente, pues te encontrabas en el parque. Claro, al final en el parque, pues te encontrabas a las otras madres, te pones a hablar o lo que sea… (Emakumea, 30-59, jatorri latinoamerikarra)*
>
> *[Elkarrizketatzailea: ¿Cómo conociste a la gente?] Con los niños. Porque la gente aquí, en general, cuando tienes pequeños, hablamos, con los niños. (Emakumea, 30-59, jatorri afrikarra)*

Lana eta haurtzaroa (eskola barne hartuta) albo batera utzita, azpimarratu da egunerokotasunean espazio ohiko batzuetan ere topo egiten dela adierazi dute batzuek, beti ere leku beretara joateko ohitura duten pertsonekin. Esaterako, hor sartzen dira dendak eta tabernak:

> *[Topo egin izan duen lekuak] Gehienetan dendetan-eta, bai, bai. Azkenean hor, bizitza egiten duzun tokietan. (Gizona, 30-59, Usurbilen jaioa eta espainiar jatorriko gurasoak)*
>
> *A: Es como te tomas una cervecita o dos y venga, pa' casa. Ducharte, cenar y hasta mañana. Pues así también un poco ayuda a que hagas más piña con la gente y que te integres mejor. Porque al final los bares unen mucho, es que unen mucho. […]*
> *B: Si no eres muy retraído y tal y ves un poco el barrio en época normal, pues te das un poco cuenta de eso, que siempre hay alguien o en los jubis o en el otro bar y que todos los días cuando vuelven de trabajar toman algo. O sea que si eres un poco echado pa'lante o… Al final siempre va a venir alquien que te va a decir: "Eh, ¡vente! ¿Quién eres, cómo te llamas?". Porque siempre pasa. O tú mismo, si eres echado pa'lante pues al final te acercas y te presentas. (Emakumea eta gizona, 30-59, espainiar jatorria, orain iritsiak)*

Hala ere, egunerokotasuneko espazio normalak baino gehiago identifikatu edo adierazi dira **okasio bereziak, festak, ekimen zehatzak** eta garai jakin batzuk beste jatorri eta komunitateetako kideekin interakzioa sortzeko bide moduan. Hau da, esplizituki espazio bera okupatzera joan direnean, orduan egin dutela elkarrekin topo dirudi. Alde horretatik, herriko festek eta gisako ekimenek duten indarra azpimarratu dira lehenengo:

> *A: Las fiestas del pueblo, del barrio… Supongo que ese tipo de eventos hace siempre que la gente que venga de fuera –cuando llevas ya un año viviendo no, pero cuando llegas de fuera- pues todo ese tipo de… ¿No? La berbena, las sardinas, que regalan sartinas… Si es que la comida y la bebida nos une a todos. Es verdad. […] Son cosas donde el ayuntamiento puede incidir a integrar.*
> *B: A la integración de todos.*
> *A: Que le ponga el título como quiera o… "El tema de las fiestas de este año va a ser –si quieres involucrar más- integrar a… Porque nos hemos dado cuenta de que ha venido mucha gente de Marruecos y de…". Pues no sé. Con la gastronomía yo veo, desde mi punto de vista, es algo que siempre funciona muy bien. "Mira, pues en las fiestas de este año, Bienvenida a Marruecos". La gastronomía creo que une mucho. (Emakumea eta gizona, 30-59, espainiar jatorria, orain iritsiak)*

Ildo beretik jarraituta, Mundualdia ekimena oso ondo baloratua izan da, bereziki heldutan beste herrialdeetatik etorritako usurbildarren artean. Lehen urteetan estrategikoki baliagarria izan zaien ekimen moduan baloratu dute, herria ezagutu eta herrian beren burua ezagutarazteko balio izan dielako:

Desde que crearon el Mundualdia, que el Ayuntamiento creó el Mundualdia, nosotros nos interesamos en participar, y desde entonces todos los años participamos. Y eso nos ha ayudado a nosotros también que la gente nos conozca más. Porque la gente ya sabe, "Ah, esos son los chicos que cocinan tal comida, que cocinan bien rico". Y la gente, aunque no te conozca, "Kaixo", "Epa", "Qué tal", y nos detenemos. "Ay, ¡qué lindo el niño!", no sé qué, y gente que tal vez nunca le habías hablado. (Gizona, 30-59, jatorri latinoamerikarra)

Al final, la gente va. O sea, me acuerdo que incluso, yo te hablo de hace años. Había eso y yo: "Jo, no creo que vaya la gente ahí a probar las comidas, los de Usurbil, los de aquí, aquí". No creo. Y al final, qué va. Al final sí. Al final, lo que decía antes, te amoldas a todo. Y yo creo que la gente de aquí ya se ha amoldado a todos los de fuera. […] Me gustan esas cosas, porque al final como que te hacen integrar, te hacen conocer más gente. (Emakumea, 30-59, jatorri latinoamerikarra)

Yo me iría más como por el tema cultural. Me gustan esas actividades del Mundualdia, ese es muy interesante. (Gizona, 30 urte azpitik, jatorri latinoamerikarra)

Hemen egiten da gauza bat oso polita: festa bat antolatzen da larunbatean edo jaian atzerritar guztiak de todos los países Usurbilen daudenak. Oso festa polita egiten da de integración. Ni beti, urtero joaten naiz. Beraien bazkaria prestatzen dute, beraien edariak, gero beren folklorea eta… Niri asko gustatzen zait egun hori. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)

Azkenik, herrian eta auzoan harreman gehiago sortzeko balio izan duen fenomeno puntual moduan berrogeialdia oso presente egon da esperientzietan. Gertuko bizilagunekin lotura estutzeko balio izan du, bai iritsi berriak zirenei eta baita denboraldi bat Usurbilen zeraman jendeari ere:

Esta pandemia cómo nos encerró y cómo nos puso en nuestro sitio. Y fue una cosa que cuando empiezan los aplausos, que empieza la gente a las ocho de la noche los aplausos y eso, nos salíamos a la ventana. Y nos veíamos la cara con los vecinos y eso, los de enfrente. Yo realmente no conocía a ningún vecino. […] Y se volvió tan bonito. Y empezamos nosotros, la vecina de al lado ya por lo menos me hacía así [saluda], y la de allá abajo "¡Hola, vecino!", y dije yo: hay que ver lo bueno también que dejó esta pandemia. (Gizona, 30-59, jatorri latinoamerikarra)

A: Ya estamos totalmente adaptados al barrio. Formamos parte de la cuadrilla, la verdad.
B: En parte [la cuarentena] nos ayudó a eso, a integrarnos con el resto de vecinos. Y como también está ahí un poco apartado lo que es Santuenea, pues al final conoces a todo el mundo. Por los balcones, cuando empezaron a dejar salir todo el mundo se juntó… Como que había mucho más, no sé, como más amistad. Porque podías juntarte ahí en el barrio, pero eran un par de horas las que te dejaban salir. Entonces, era como: la gente no se iba de allí. Entonces, todo el mundo se juntaba. "Va, vamos a caminar, tal, no sé qué. ¡El distanciamiento! ¡Esto!" [ríe].
B: Ha acercado. Creo que la situación de estar confinado ha acercado a la gente más, ¿no? […]
[La cuadrilla de Usurbil] A: Nos han integrado ellos a nosotros.
B: Fue un poco todo…
A: … de jugar el bingo en el confinamiento [risas]. […] Sí, sí, es verdad. Me llevan a coger hongos y todo [risas]. (Emakumea eta gizona, 30-59, espainiar jatorria, orain iritsiak)

Desde la pandemia conocemos a muchísima más gente en nuestro barrio, te lo juro. Cuando salíamos a aplaudir… A ver, los conocíamos de "Hola", "Apa", "Kaixo", sin más. Pero ahora "¡Hola! ¿Qué tal?". Ha cambiado muchísimo. (Emakumea, 30-59, jatorri latinoamerikarra)

Agian espazio puntualek harremanak sortzeko izan duten aukerarekin lotuta, aurrera begira harremanak sortzeko aukera eta potentziala ikusten den gakoei buruz galdetuta, espazioak sortzea izan da erantzun errepikatuenetakoa. Jende desberdinari gerturatzeko interesa sortuaraziko dion "gantxo" batekin,

También tiene que haber espacios donde se den los diálogos, que también son importantes para una comunidad. Hablar, conocernos. […] A mí me parece que hace falta hablar de todo. Y en especial de aquellos temas que han hecho mucho daño. (Emakumea, 30 urtez azpitik, jatorri latinoamerikarra)

Yo creo que sería muy divertido: juntas a todas las personas en la sala, les pones a hacer una gymkana de un minuto y que paso y con comida, yo creo que nos lo pasaríamos genial una vez cada no sé cuánto, y estaría muy guay. (Emakumea, 30 urtez azpitik, jatorri afrikarra)

Espazioak sortze bide horretan, ñabardura bat gehitu da kontuan hartzeko interesgarri moduan: hain justu, zein gunetan kokatuta sortzen diren espazio horiek. Desberdinen arteko harremanak sustatzearekin batera, Usurbilgo zonalde desberdinak kontuan har daitezkeela iritzi da eta auzoetara, gogoetaren kasuan Santueneara, ekintzak eta espazioak bideratu bertan ere sor daitezen harremanak. Kirola baliabide aproposa dela baloratu da horretarako:

> *A: Kiroldegia egitearekin, zer egin zen? Dena hara trasladatu. Eta hori auzo honentzat [Santuenea] izan zen egin zaion…*
> *B: Eta, gainera, astegunean mutilak gora eta behera, gora eta behera, entrenamenduak… Dena. Bizitza, bizitza.*
> *A: Eta horrek egin zigun auzoa hil. Hemengo gazte gehienen kirola eskubaloia izan da, oso eskura zeneukan auzoan bertan, eta kristoren bizia ematen zion auzoari. Eta hori kentzea… Eta nik uste dut hori udalak serio hartu beharko lukeela. Nik uste dut kiroldegiak eta Udalak eta eskubaloi zerak, hori ber-hartu behar dutela eta horrelako azpiegitura bati berriro… Hona ekarri egin behar da. (Emakumeak, 30-59 eta +60, Usurbilen jaioak)*

Batera egoteko espazioak sortzearekin batera, ezagutarazteko edo elkar ezagutzeko beharra aipatu da, aurreiritziei eta estereotipoei aurre egiteko modu bezala:

> *Lo primero es darte a conocer. Esa es la base, darte a conocer. Y que sepa la gente que no es lo que ellos piensan. Que se vayan quitando esas ideas. A ver, sí, que habemos todo tipo de personas. Habemos personas de otros países que hemos venido aquí a hacer cosas indebidas, pero habemos muchísima gente que aquí nos hemos ganado el estar en este país, trabajar y ganarnos la vida y tener a nuestros hijos estudiando para el mañana aportar también al país, […] Habemos de todo. Pero los que están aquí no entienden eso. En ese momento, nosotros somos como los culpables o los que venimos a usurpar pueblos. (Gizona, 30-59, jatorri latinoamerikarra)*

Eta ezagutarazteko bide horretan, testigantzen potentziala azpimarratu da "bestearengana" gerturatzeko:

> *Yo creo que los testimonios son importantes para conocer a las personas. Para conocernos y para romper con estereotipos y estigmas. Que tenemos mogollón. Un día yo, paseando por las riberas de Usurbil, vi dos chavales en bicicleta. A mí me entró una cosa, un miedo en el cuerpo, pero por cómo iban vestidos y lo que yo creía que eran… (Emakumea, 30 urtez azpitik, jatorri latinoamerikarra)*

Desberdinen arteko harremanak sortzerakoan kontuan hartzeko gai bat ere mahaigaineratu da elkarrizketetan: hain justu, desberdintasunak daudenean sortzen diren botere-harremanak presente izatea, arretaz heltzea gaiari eta berdinetik berdinerako interakzioak sortzea, aldebikotasunean oinarrituta eta norabide guztietan aberasgarria izateko helburuarekin.

> *O sea, al final, la interculturalidad va en un sentido bidireccional o cíclico. Tenemos que girar todos en un mismo círculo. No unos fuera y otros dentro y otros más dentro. Porque, al final, así se crean las desigualdades. […] La reciprocidad. De por los dos lados. Yo tengo que dejar de tener miedo y abrirme, o dar el paso. Pero también tengo que ver que me esperan con los brazos abiertos. (Emakumea, 30 urtez azpitik, jatorri latinoamerikarra)*

> *A: Ni aurrekoan emakume batekin, Santuenekoa zen. Ezagutzen dut lehendik, bistaz. Eta esaten zidan zeuzkala, ez dakit bi edo hiru mutil lanik gabe. "Y luego, los de fuera, los de fuera…". ¡Ella también era de fuera!*
> *B: Sí, pero los de fuera son los morenitos. (Emakumeak, +60, Usurbilen jaioa eta txikitan etorria, jatorri euskalduneko gurasoak)*

> *[Elkarrizketatzailea: ¿Echas de menos que la gente pregunte y se interese?] ¡Sí! En plan, joder, tú no has probado… O sea, me da incluso pena, tío. Deberían probar todos la comida de mi madre, ¿sabes? (Emakumea, 30 urtez azpitik, jatorri afrikarra)*

Gogoeta horri lotuta, jatorri aniztasuna modu integralean herrian txertatzeko gai moduan hartu behar dela baloratu da, antolatzen den jarduera bakoitzeko kontuan hartuz, eta ez espresuki berau lantzeko ekimenetan soilik gelditu:

> *Al Ayuntamiento yo le pediría que nos incorpore más, que si en un futuro hay proyectos futuros para toda la sociedad, no sólo para nosotros los inmigrantes, porque todos también queremos ser parte de los proyectos del Ayuntamiento, que sean proyectos que vengan a ayudarnos a todos. (Gizona, 30-59, jatorri latinoamerikarra)*

Eta aniztasun horren baitan, euskara eta euskal erreferentziak usurbildarrak lotuko dituen erreferente konpartitua izateko interesa adierazi da, bakoitzak bereari eutsi eta bestearengana gerturatzeko baliabide moduan.

> *Ondo etorriko litzateke hemen jolasten ari diren mutil gazte hauekin, sudamerikanoak etabar, erdararako joera dutenak… […] Nik hemen, kalean, jolaslekuetan, jarriko nituzke gazteak, eh, jende gaztea; eta pixka bat eskolatik kanpo ere integrazio hori lortuko duen norbait. Eta erderaz hasten direnean umeak, euskaraz berak hitz batzuk… Ez hola, en plan, "este nos viene aquí a…", ez. […] Nik hemen bai nahi dudala planteatu, aber euskara basiko bat emakumeentzat behintzat. Beraiek ere hemengo jendearekin integratzeko herramientaren bat behar dute. Eta hizkuntza da lehendabiziko herramienta nire ustez. (Emakumea, +60, Usurbilen jaioa)*

LABURBILDUZ (MIGRAZIOAREN BALORAZIOA ETA INTERAKZIOAREN AUKERAK)

- Distantzia kultural handiagoa nabaritzen da gaur egungo migrazio-fenomenoaren bueltan, eta horrek harreman-espazioak zailtzea dakar. Edozein kasutan, ezin da ahaztu espainiar migrazioaren baitako aniztasuna ere.
- Bi diskurtso kontrajarri nagusitzen dira migrazio berriaren balorazioan: **diskurtso proaktiboa**, pertsonen berdintasuna aldarrikatzen duena, migrazioarekin elkarbizi egin behar dela eta harremanek berdinetik berdinerakoak izan behar dutela defendatzen duena, aniztasuna balore positibo moduan ikusiz. Bestetik, **diskurtso erreaktiboa** edo migratzaileen irudi negatiboa sortzeko elementu gako batzuk azaleratu dira elkarrizketetan, erabiliak izan direnak: diru-laguntzetatik bizi direla, ez dutela lanik egin nahi, zergak ez dituztela behar bezala ordaintzen eta delinkuentzia eta biolentzia areagotzen dutela.
- Maila diskurtsiboko elementuak praktikan ere nabaritu izan dira batzuetan, desberdina izateagatik seinalatuak izanez edo erreakzio arrazistak bizituz tentsio uneko egoeretan.
- Desberdinen arteko harremana murritza dela sentitzen da, bai "autoktonoen" eta iritsi berrien artean eta baita azken horien artean ere. Edozein kasutan, interakziorako balio duten edo aipagarriak diren elementuen artean, honakoak jasotzen dira (batzuk aurreko aldiko berdinak eta besteak berriak):
    - **Haurtzaroa** (bai haurrei beraiei dagokienez eta kasu horretan eskolari lotuta, eta baita gurasoen arteko harremanetarako ere)
    - **Aisialdia: auzoko gunea eta kirol-jarduerak**.
    - **Lan mundua.**
    - **Ekimen zehatzak (festak, Mundualdia, berrogeialdia…)**
- Aurrera begira, **espazioak** sortzea izan da ohiko proposamen bat, berdinetik berdinera, jatorri aniztasuna zeharlerro moduan hartuta eta euskara erdigunean kokatuz.

ONDORIOAK

Aurreko orrietan Usurbilgo jatorri aniztasunaren ibilbide bat egin dugu, herrian azken urteetan egon diren bi migrazio-olatu handiak ardatz hartuta: XX. mende erdialdean Espainiatik etorritakoa eta azken hogei urteetan nagusiki munduko beste lekuetatik etorri dena.

Migrazio-prozesuak aztertu ditugu, Usurbilera egokitzapena eta herriaren pertzepzioa, eguneroko bizimodua hainbat gairen arabera (lana, eskola, aisia, euskara eta Santueneara begirada bat zehazki) eta migrazio bakoitzaren kasuan bere balorazioa eta interakziorako gune nagusiak identifikatu dira.

Txostena amaitzeko, ondorio moduan bi gairi helduko zaie:

- Elkarrizketetan identifikatzen diren hiru eredu aurkeztuko dira kultur aniztasunaz pentsatzeko eta bere aurrean kokatzeko

- Desberdinen arteko interakzioa bilatzeko lan honetan detektatutako gakoak nagusiak jasoko dira, aurrera begira eman daitezkeen pausoak argitzeko

3. HARREMANAK IRUDIKATZEKO HIRU EREDU

Lanean zehar Usurbilgo herritarrek jatorri aniztasunaren gaiarekin duten harremana, beren bizipenak eta diskurtsoak jaso dira. Lehenengo, Espainiako Estatutik XX. mende erdialdean etorritako migrazioari erreparatu zaio, garai hartako testuinguruan izandako migrazioa eta gaur egunera arteko ibilbideari. Segidan, azken bi hamarkadetan munduko txoko desberdinetatik etorritako perstonen esperientzia hartu da mintzagai. Gizarte-bizitzako eremu desberdinetako errepasoa egin da, bereziki begirada bi gaitan jarriz: migrazioaren inguruko diskurtso eta hautemateak, eta interakzioa areagotzeko aukerak edo espazioak. Ondorio moduan, eta lana sintetizatzeko, bi gai edo ideia horiei erreparatuko zaie.

Orain arte, batzuen eta besteen pertzepzioak kontuan hartuta, eta diskurtsoen berregiteari zentzua emanez, **hiru eredu topatu** dira kulturen arteko harremanak irudikatzeari dagokionez:

1. Kulturartekotasunaren eredua.
2. Kultur aniztasunaren eredua.
3. Asimilazioaren eredua.

Hiru eredu horiek ez dira beti modu itxian agertzen, hots, pertsona bat koka daiteke batez ere lehenengoan, baina bigarrenetik ere pixka bat izan dezake, edo alderantziz. Horretaz gain, fluxuak gerta daitezke eredu batetik bestera, elementu zehatz batzuek eraginda.



3.1. 1 EREDUA: KULTURARTEKOTASUNA



Integrazio kulturala irudikatzeko garaian, kulturartekotasunean oinarritutako eredu bat antzematen dugu, kulturen arteko harremana sustatu nahi duena, elkar elikatuz, ikuspegi dinamiko batean. Eredu horren ezaugarri garbiena honako hau da: Usurbilen dagoen kultura aniztasuna pertsonalki eta kolektiboki aberasteko aukera da, eta aukera hori baliatzeko, kulturen arteko harremanak sustatu behar dira. Migrazioaren balorazioa aztertzerakoan xehetu den diskurtso proaktiboko elementuak biltzen ditu.

Kulturartekotasun gogo hori zenbait baliotan oinarritzen da, diskurtso humanistari atxiki dakizkiokeen balioetan, hain justu. Baina lotura bakarra ez da diskurtso humanistarekin duena, posizio autozentratu dinamikoarekin ere badu-eta lotura (norbere kulturan zentratua eta berau garatzeko eta zabaltzeko asmoz, ikuspegi irekiarekin beste kulturen eragina jasotzeko prest dagoena).

Kulturartekotasun horretan euskarak eta euskal kulturak leku garrantzitsua dute, erdigunea esan daiteke. Beraz, euskal kulturatik kulturartekotasun hori jorratzeko aukera edo interesa ikusten dira diskurtsoetan.

Harreman horiek sostengu kultural bat dute. Ez da, ordea, duten sostengu bakarra. Hain zuzen ere, sostengu materiala ere garrantzitsua da. Kulturartekotasunak behar du oinarri materiala, behar ditu berdintasuna eta eskubide batzuk, bizimodu duin bat bermatuko dutenak. Eskubiderik gabe, botere harreman asimetrikoetan sustraituko lirateke harremanak, eta, ondorioz, kulturatekotasuna ezinezko bihurtuko litzateke. Aditzera ematen da kulturartekotasunaren eredua honako printzipio honetan oinarritzen dela: berdintasuna bizitzeko, aniztasuna elkarbizitzeko.

Etorkin berriek eredu horrekin bat egiteak baditu bere zailtasunak. Izan ere, soilik interesa izango du integrazio kulturala gauzatzeko hautua egin duenak. Baldintza horri beste eragozpen bat gehitu behar zaio. Hain zuzen ere, euskal kulturara hurbiltzeko aukera izatea, sentitu gabe beren kultura baztertu eta gurea asimilatu behar dutenik.

Joera hori lotu behar zaie egunerokoan eraikitzen diren harremanei; hau da, harreman mota batzuen aurrean (ezberdina den bezala onartzeko prest ez dagoenarekin eta posizio sozial dominantean kokatzen denarekin), integrazio estrategia eraginkorrena asimilazioarena izan daiteke. Pentsa daiteke posizio humanista eta autozentratu dinamikoan dagoenarekin harremana eraikitzen hasita, aukera berriak irekiko zaizkiola integratzeko, bere kulturari bizkarra eman gabe.

Eredu honen aurkezpenarekin bukatzeko, honakoa nabarmendu nahi da: kulturartekotasunean oinarritutako ereduak bermatzen du kulturen arteko ezagutza, aitortza eta elkarbizitza.

3.2. 2. EREDUA: KULTUR ANIZTASUNA



Bigarren eredua kultur aniztasunarena da. Eredu honetan, onartu egiten da Usurbilen dagoen kultur aniztasuna, egun dagoen datu objektiboa da. Baina ikuspegi honetan ez da sumatzen aparteko gogorik kulturen artean harremanak sortzen joateko. Bestea, ezberdina dena, ez da mehatxu bat, baina ezta ere aberastasun iturri edo pertsonalki aberasteko aukera bat.

Eredu hori eraikitzen da indiferentziaren eta heteronomia moldatzailearen posizioetatik. Estratifikazio sozialean posizio eroso eta seguruan aurkitzen da; hortaz, ez du mehatxu gisa ikusten etorkin berria. Migrazioa distantziatik bizi den fenomenoa da, oso gutxitan harremana izaten diren pertsona gisa irudikatzen dira.

Kultur aniztasunean, aniztasun hori besterik gabe dagoen errealitatea da, ez dago inongo motiborik aniztasun hori zalantzan jarri edo borrokatzeko. Oso noizean behin suertatzen diren harreman horietarako, aldebiko errespetua proposatzen da. Eredu honetan, nahasten ez diren bi mundu horien arteko errespetua aldarrikatzen da koexistentzia baketsu bat izateko. Distantzia sozialak, ikuspegi horretatik, erraztu egiten ditu gauza asko, eta saihestu egiten ditu beste gauza asko. Distantzia hori apurtzen bada, adibidez, etxean emakume latino batek lana egiten duelako, distantzia afektiboarekin eta korrekzioarekin, egoerak ondo bideratzen dira.

3.3. 3 EREDUA: ASIMILAZIOA

Kulturen arteko harremanak irudikatzeko diskurtsoetan topatu den azken eredua asimilazioarena da. Usurbilen bertako kultura eta ohitura batzuk daude, eta horretara egokitu behar dute bestelako ezaugarri kulturalak dituzten usurbildarrek. Beste pertsonak bere ezaugarri kulturalei eutsi nahi izateari probokazio kutsua edo arazo zantzua hartzen diote. Ezberdinari eskatzen zaio bere kulturari uko egin diezaiola, diluitzen utzi eta bertakora egokitu dadila. Asimilazioaren eredua bat dator migrazioaren inguruko diskurtso erreaktiboarekin.

Hiru eredu horien artean, kulturartekotasunean oinarritutako ereduak bermatu eta sustatzen du egokien kulturen arteko ezagutza, aitortza eta elkarbizitza. Alabaina, ez dirudi, hedadura sozialari dagokionez, diskurtso dominanteetan eredu hau ageri denik; hala ere, eredu honek badu espazio sozial bat, baditu jendarte sektore eta pertsona batzuk eredu honetara atxikitzen direnak. Horretaz gain, egunez egun kulturartekotasuna lantzen duten topaguneak ere badira.

4. DESBERDINEN INTERAKZIOA BILATZEKO GAKOAK

Amaitzeko, lanean zehar jasotako gako nagusiak sintetizatuko ditugu desberdinen arteko interakzioa bilatzeko balio izan duten eta balio dezaketen elementuen inguruan. Hiru gai nagusi aipatuko ditugu, aurrera begira kontuan hartzekoak izan daitezkeenak: elkar topatzeko espazioak, kulturartekotasunaren eredua sustatzea eta Usurbilgo auzo edo zonaldeen oreka bilatzea.

Usurbilen bi migrazio nagusi aztertu ditugu, eta bakoitzaren kasuan herriarekiko duten harremana desberdina dela ikusi da, hainbat faktoreren arabera (esaterako, iritsi ziren garaiko testuingurua eta gaur egunera arte pasa duten denbora bertan). Hala, bakoitzaren kasuan errealitatea eta lanketagaiak desberdinak dira.

Espainiatik 60-70. hamarkaden bueltan etorri ziren pertsonek dagoeneko bizitza eraikita dute Usurbilen eta, gaur egun bertan dauden pertsonek herrian gelditzeko intentzioa dute. Era berean, modu batera edo bestera dagoeneko sortuak dituzte harreman gehiago edo gutxiago beren belaunaldian Usurbilen bertan jaio eta bizi ziren pertsonekin, eguneroko bizitzako harremanetik (lana, eskola, elkartegintza…). Oraindik ere bi komunitate daudela baloratzen den arren, nagusiki hizkuntzak banatzen dituena, egunerokotasunean harreman ona dagoela ikusten da, nahiz eta hizkuntzaren gaiak tentsioak sortzen jarraitzen duen.

Gaur egun iristen ari den migrazioaren kasua desberdina da. Honakoan, beste herritarrekin tratua edukitzeko espazioen hutsunea da adierazten dena. Aurreko migrazioaren kasuan, iritsi zirenek eta bertan bizi zirenek espazio beretan ikasten zuten eta lan egiten zuten, baldintza berdinetan edo maila berean zeuden eskubideen aldetik eta gaztelania zen espazio publikoan erabili behar zen hizkuntza. Aldiz, migrazio berriaren garaian aldagai horiek guztiak aldatu dira. Lanaren eremua askoz banatuagoa dago, iritsi berriei lanik prekarioenak eta ikusten ez diren zaintza lanen gisakoak emanez; eta, beraz, beste herritarrekin ez dute topo egiten. Eskolaren kasuan, Usurbilen ikastola soilik egoteak migratzaileen artean ugari Lasarte-Oriara edo beste nonbaitera bideratzen ditu, dela prezioarengatik, dela hala adierazi zaielako administrazio publikotik edota ikastolan seme-alabak baztertu egingo ote dituzten kezka dagoelako. Horrez gain, sarritan egoera administratibo zaurgarrian etortzen dira, hainbat jarduera egitea mugatuz, eta aisialdiko ohiturak ere lehen baino desberdinagoak dira.

Faktore horiek guztiak tarteko, baloratzen da egunerokotasunean topo egiteko espazio natural gutxiago daudela. Izan ere, aurrera begira interakzioa areagotzeko bide moduan gehien aipatu dena espazio horiek sortzeko beharra izan da. Zentzu horretan, ekimen puntualak hartu dira erreferentzia edo eredu moduan (festak, Mundualdia…) eta horiek izan dira proposatu direnak, nahiz eta aldi berean ikusten zaien egun puntualeko logikan gelditzeko arriskua. Bestetik, jatorri aniztasuna zeharlerroan herriko jarduera orotan kontuan hartu behar dela ikusten da, eta ez soilik gaia lantzeko ekimen puntualetan gelditu. Azkenik, berdinetik berdinerako harremanak eraikitzea ezinbestekoa ikusten da, migratzaileak beraiek ere subjektu aktibo moduan kontuan hartuta.

Migrazioa irudikatzerako orduan hiru eredu nagusi ikusi dira disurtsoetan: kulturartekotasunarena (migrazioaren inguruko diskurtso proaktibo batekin), kulturaniztasunarena eta asimilazioarena (migrazioaren inguruko diskurtso erreaktiboarekin).

Lehenengoan anitzen arteko harremanak positiboki baloratzen dira eta sustatzen dira, berdinetik berdinerako logikan eta erdigunean, guztion lotunerako elementu gisa, euskara jarrita. Bigarrenean, kultura eta komunitate bakoitza bere bidea egitearen aldeko apustua egiten da, interakzioa bilatu gabe eta elkarrekintzarik eduki gabe "bestea"-rekin. Hirugarren ereduan atzerritarrek dakartzaten ezaugarriak arriskutsutzat edo mehatxugarritzat jotzen dira eta "bertako kulturara" egokitu behar dutela baloratzen da.

Usurbilgo herritarren diskurtsoetan hiru posizioak identifikatu dira, elkarrizketatutako subjektu bakoitzak elementu desberdinak diskurtso bat baino gehiagotatik har ditzakeela ere kontuan hartuta. Are gehiago, asimilazionismoa edo migrazioarekiko diskurtso erreaktiboa eguneroko bizimoduan tentsio egoera batzuetan aktibatu egin dela ere jaso da, horrek bizikidetzarako dakartzan oztopo eta erronkekin.

Horren aurrean, desberdinen arteko ezagutza, harremana eta aitortza egokien sustatzen dituen eredua, kulturartekotasunarena, zabaltzeko pausoak ematea izan daiteke bidea. Diskurtso erreakzionarioak sarritan erabili ohi dituen aurreiritziak sozialki landu daitezke (migratzaileek ez dutela lan egin nahi baizik eta diru-laguntzetatik bizi edota gatazkatsuak direla) eta kulturartekotasunaren balioak sustatu daitezke: berdinen arteko harremana, humanismoa, aniztasuna aberastasun moduan eta Usurbil herri anitz moduan. Horretarako, desberdinen arteko espazioak sortzeaz gain, testigantzen indarra azpimarratu da elkarrizketetan.

Azkenik, migrazioaren fenomenoa ez da bestelako dinamika sozialetatik aparte gertatzen den zerbait: testuinguru historiko, sozial eta ekonomiko batean txertatuta garatzen diren dinamikak dira. Horrekin batera, Usurbilen azken hamarkadetako bilakaera ere indar sozioekonomiko batzuk eraginda egon da. Lehenengo migrazioaren garaian Usurbil handitu egin zen, industrializazioak eraginda, eta industriaguneetara lanera etorri ziren langileak hartzeko auzo batzuk eraiki ziren, urtetan seinalatuak izan direnak diskurtsiboki. Auzo gehienak Usurbilgo erdigunearekin bat egiten joan dira, baina Santuenearekiko gaur egun ere mantentzen da distantzia fisikoa eta sinbolikoa, migratzaileak bertara bizitzera joan ziren maila ekonomiko baxuagoko auzo moduan irudikatu izan baita historikoki. Gaur egun ere eraikinek eta auzoko instalazioek ez dituzte beste gune batzuetan dauden zerbitzu guztiak eskaintzen, eta horrek eraginda iraganeko fenomenoa errepikatzen ari da: migratzaile gehiago kontzentratzen dira auzoan bertan, giro erdaldunagoa sortzen da, erosketa ahalmen baxuagoa biltzen da eta trantsizio auzo moduan irudikatzen da, gero beste nonbaitera joateko. Usurbilekin harreman mugatua dagoela baloratzen da auzo honetan, eta gaur egun ere sinbolikoki bereizketa markatzen duten terminoak erabiltzen jarraitzen da, nahiz eta hitz zehatzak aldatu diren. Auzo moduan bizitasuna badu eta auzokideen arteko harremanak erdigunean baino estuagoak eta guzti dira eta kasu gehienetan onak, baina edozein kasutan tentsio puntu batzuk nabaritzen dira noizean behin eta aurrera begira joera horiei mantentzen utziz gero bestelako arrisku batzuk areagotu daitezkeela ikusten da elkarbizitzari begira. Beraz, herriko auzoen arteko garapen orekatua ere, jatorri aniztasuna eta elkarbizitzari begira, lantzeko gako garrantzitsu bat izango da.

Usurbil ezaugarri desberdineko pertsonek osatutako herria izan da betidanik eta hala izaten jarraituko du. Beren artean sortuko diren harremanak eta elkarrekintzak mota batekoak izango dira edo bestekoak, kolore bat hartuko dute edo beste, unean-unean jokoan egongo diren faktore ugariren arabera. Edozein kasutan, aniztasuna modu egokian kudeatzeko saiakerak eginez gero eta gaia guztion artean landuz gero, aniztasun hori hobeto kudeatzeko aukera gehiago izango dugu.